

# **ZENBAIT EZAUGARRI ARABERAREN DEFINIZIORAKO**

Iker Ondartza Padierna

Euskal Ikasketak

2019-2020

Tutorea: Joseba A. Lakarra

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Letren Fakultatea

EHU-UPV

## **LABURPENA**

Araban hitz egiten zen (eta den) euskara dialektalaz aritu gara lan honetan. Mitxelena hartu zuen lehenbizikoz arabera dialektotzat, “meridional” edo “hegoaldekoa” deituz, eta paradigma aldaketa eragin zuen gaiari dagokionez. Azken urteotan honen inguruan aurrerapen handiak egiten ari dira, eta baita araberek Euskal Herriko mendebaldeko dialektoen bilakabidea ulertzeko duen garrantzia argitzen ere. Hala ere, araberek definitu gabe jarraitzen du. Horretan izango da lan honetako helburu nagusia: araberaren definizio linguistiko eta geografikoan aurreratzea.

Bada, Arabako euskarari buruz orain arte esandakoaz hasi gara, honen gaineko ideia nagusien berrikuste labur bat eginez, eta batez ere azken urteotan esandakoak batu ditugu. Honetaz gain, Urgellen (2020) proposamen nagusia eta hausnarketa gure egin ditugu. Ondoren, gaia dialektologia diakronikoaren ikuspegitik hartzearen beharraz jardun dugu, eta lanean baliagarrien izan zaizkigun proposamenak ekarri ditugu, Camino (2008), Lakarra (2014) eta Zuloaga (2020) izan direlarik iturri nagusiak.

Hauek amaituta, analisiari eman diogu bide. Honetarako, Araba erdi-ekialdeko eta araberekin lotutako zenbait lekukotasun garrantzitsu izan ditugu oinarrian. Lekukotasunotatik abiatuta, aukeratutako 20 ezaugarri aztertu ditugu, eta corpusean ez ezik, ondoko hizkeretan ere bakoitzak zein leku eta bilakaera izan duen kontuan hartzen saiatu gara.

Analisitik lortutako datuak 4 multzo nagusitan sailkatu ditugu: MEZaren ezaugarriak liratekeenak, arabera bizkaierarekin lotzen dutenak, bereizten dutenak, eta azkenik araberaren ezaugarri eskusiboak diratekeenak. Datuokin MEZaren dialektalizazio prozesuan araberek bizkaierarekin hizkuntza-egoera batuago bat osatu zuela ikusi dugu, eta arabera linguistikoki definitzeko zenbait puntu garatzea eta eranstea lortu dugu, batez ere eskusiboekin. Azkenik, Debagoienako euskarak, araberekin bizkaierarekin baino lotura sakonagoa eta hierarkikoki garrantzitsuagoa izan zuela ikusi dugu, eta aztertutako isoglosetatik ondorioztatu dugu Debagoienako euskara araberaren partetzat jo beharra dagoela, azken urteotako zenbait lanetan aldarrikatu bezala. Azken ondorio honetatik abiatuta, etorkizunerako aztertzeko bide bat zabaltzen dela markatu dugu: mugetakoak diren eta orain arte beste dialektoekin sailkatu izan diren hizkerak aztertu eta lekukotasunak araberarekin sistematikoki konparatu beharko liratekeela, alegia.

**AURKIBIDEA**

0.	Sarrera .....	4
1.	Arabako euskaraz zerbait .....	4
	1.1. Historiografia labur .....	4
	1.2. Hizkuntza-egoerak .....	6
	1.3. Corpora .....	8
2.	Dialektologia diakronikorako metodologiaz .....	9
3.	Aztertutako corpora .....	11
4.	Analisia .....	12
	4.1. Ezaugarriak .....	12
	4.1.1. $a + a > ea$ .....	12
	4.1.2. <i>egin</i> laguntzailea .....	12
	4.1.3. <i>-rean</i> ablatiboa .....	13
	4.1.4. * <i>edun</i> adizkietako erroak .....	14
	4.1.5. Asimilazioak * <i>edin</i> -en adizkietan .....	15
	4.1.6. Txistukarien sabaikaritzea .....	15
	4.1.7. $a + a > ea$ adizkietan .....	16
	4.1.8. Sudurkaritasuna .....	16
	4.1.9. <i>-ain</i> / <i>-an</i> eta <i>-uin</i> / <i>-un</i> amaierak .....	17
	4.1.10. Soziatiboa .....	17
	4.1.11. Genitiboa .....	18
	4.1.12. Erro ditransitiboak .....	19
	4.1.13. <i>-adu</i> eta <i>-idu</i> partizipioak .....	19
	4.1.14. <i>-z</i> pluralgilearen hedatzea .....	20
	4.1.15. <i>-eta</i> eta <i>-keta</i> aditz-izenak .....	20
	4.1.16. Pluraleko komuntadura falta .....	22
	4.1.17. <i>Jagin</i> eta <i>jakin</i> aditzak .....	24
	4.1.18. Beste erro ditransitibo bat: <i>-a(g)o-</i> .....	25
	4.1.19. * <i>eradutsi</i> .....	26
	4.1.20. * <i>edun</i> -en lehenaldiak: <i>geben</i> , <i>zeben</i> .....	27
5.	Ondorioak .....	27
	5.1. Sailkapenerako balio ez zaizkigun ezaugarriak .....	28
	5.2. A, B eta G lotzen dituztenak (MEZarenak) .....	28
	5.3. MEZaren barne-dialektalizaziorako ezaugarriak .....	29
	5.3.1. A eta B lotzen dituztenak .....	29
	5.3.2. A eta B bereizten dituztenak .....	30
	5.3.3. A eta Bren arteko lotura .....	31
	5.4. Araberaren ezaugarri eskusiboak .....	32
	5.5. Araberaren hedadura geografikoa .....	34
	5.6. “EHTik kanpoko batua” .....	34
	5.7. Amaitzeko .....	34
6.	Bibliografia.....	35
7.	Eranskina .....	37
	7.1. <i>Jagin</i> eta <i>jakin</i> adizkien zerrenda .....	37
	7.2. <i>-a(g)o-</i> erroko adizkien zerrenda .....	38

## 0. Sarrera

Askotan ukatu izan zaio araberari dialekto izaera, edo, ukatu ez arren, pisu gutxi eman izan zaio euskal dialektoen artean. Honen atzean beronen galera bizkorra eta beste euskalkien nahastetzat jo izana daude. Bada, lehenbizikoz 1958an Mitxelenak eman zion dialekto kategoria, eta azken urteetan, batez ere Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzaren ondoren (cf. orain Bilbao et al. 2020), araberaren gaineko lanak ugartu egin dira. Honetaz gain, Mendebaldeko Euskara Zaharra (MEZ) definitzeko ezinutzizko euskarri eta abiapuntu bilakatu da (cf. Lakarra 2014, Zuloaga 2020, Urgell 2020). Hala ere, araberak definitu gabe jarraitzen du, ez linguistikoki, ez geografikoki.

Bi arazo horiek izango ditugu hizpide lan honetan, eta gure helburua definizio linguistiko eta geografikoan aurrerapauso bana ematea izango da, eta zeharka bada ere, MEZaren barne-dialektalizazioaren aferan puntu batzuk zehaztea. Horretarako dialektologia diakronikotik lantzea beharrezkoa iruditu zaigu, eta tradizio aurreratuetan emankorren izan diren metodologiak geurean aplikatzea.

## 1. Arabako euskaraz zerbait

### 1.1. Historiografia laburra

Araba, eta Arabako euskara izan dira azken urteak arte euskalaritzan pisu gutxien eman izan zaien lurralde eta hizkera(k). Hau dela eta arrazoi pare bat argudiatu izan da, hots, euskararen galera goiz eta bizkorra, lekukotasun gutxi gorde izana, eta bertako euskararen bereizgarri “propio”-rik eza.

Hasteko, Oihenartek egin zuen euskararen dialektoen lehen hurbilketa. Honek, Araba eta Gipuzkoako euskara batera kokatu zituen. Hurrengo mendean, Larramendi, Bizkaikoari hurbildu zitzaion, nahiz eta desberdintasunak zituela ere erantsi: "El dialecto de Alava en lo más es el mismo de Vizcaya, no en el todo" (Larramendi 1969: 299 in Zuazo 1989: 166). Azkenik, Bonapartek ere bizkaieraren partetzat jo zuen, baina esan beharra dago, printzeak bere sailkapena egin zuenerako Araban euskara jada oso ahulduta zegoela, eta Bizkaia eta Gipuzkoako mugetako herrietan gordea.

1958. urtean, Mitxelenak eta Agudek Landucci italiarraren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* hiztegiaren edizioa kaleratu zuten, eta beste hainbat arlotan bezala, inflexio-puntu bat eragin zuten Arabako euskararen azterketaren historian.

Mitxelenak hizkera hau Bizkaikotik hurbil ikusi zuen arren, ezaugarri desberdinak ere bazituela zeritzan, dialekto kategoria emateko lain. “Meridional” deitura jarri zion, “hegoaldekoa” euskaraz, eta aspaldi euskara galduta dagoen eremu batekoa izango zela

zeritzan. Bestalde, aipatu bezala bizkaierarekin eta Arabako erromantzearekin zeuzkan loturetan oinarrituz, Araban kokatu beharko litzatekeela ondorioztatu zuen:

De aquí se sigue naturalmente que esta variedad extinta debió hablarse al sur de la actual zona de habla vasca, es decir, en Alava o en Navarra. Y la afinidad con el vizcaíno a que nos acabamos de referir apunta precisamente a Alava, cuya habla, tanto por los testimonios anteriores que poseemos como por lo que hoy podemos comprobar en las zonas septentrionales que han conservado la lengua, era muy próxima al vizcaíno. (Mitzelena 1958: 38).

Gugandik hurbilago<sup>1</sup>, hainbat lanetan jorratu izan du Zuazok, 1989ko “Arabako euskara” artikulutik hasita gaur egun arte. Oro har, bilketa eta sailkatze lan ezinutzizkoa egin du urte luzeetan zehar. Zuazo, hasiera batean (1998a, 1999) ez zen Mitxelenarekin bat etorri: ez zion euskalki autonomoaren izaerarik eman, eta Mendebaldeko euskalkiaren barruan kokatu zuen (Arabako sortaldea izan ezik, hau kanpoan utzi baitzuen; 1989: 181-182). Zuazoren Mendebaldeko dialektoa beraz, Bizkaiko, Arabako, eta Deba ibarreko hizkerek osatzen zuten.

Hala ere, urteek aurrera egin ahala, iritziz aldatu zuen, eta araberari dialekto maila eman. zion:

Gauza horiek guztiok zirela eta, ez zegoela Arabako euskarari "euskalki" maila emateko arrazoi nahikoa esan nuen orain dela zenbait urte eta, Bizkaiko eta, batez ere, Deba ibarreko hizkerek batera, euskalki berean sar zitekeela (Zuazo 1998 eta 1999). Gaur egun, oster, Bizkaiko eta Deba ibarreko (Zuazo 2006b) izkribu zaharrak aztertu eta gero, iritzi hori ez zela zuzena jabetzen naiz (Zuazo 2012: 49).

Azkenik, Urgellek 2020ko “Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenak” artikuluan, hizkuntzalaritza historikoaren ikuspegitik heltzen dio gaiari. Aurretik egindako deskribapen eta sailkapen asko sinkronikoki egin dira, eta ikuskera hau helburu batzuetarako aproposa den arren, hizkuntza-egoerak mendeetan zehar aztertu nahi izanez gero ez da nahikoa.

Lehenik eta behin, orain arte nagusi izan den “Arabako euskara” terminoaren anbiguotasuna nabarmentzen du eta dialektoa linguistikoki, kronologikoki eta baita geografikoki definitu beharra, muga politikoez daukan loturatik saihestuz. Anbiguotasunaren aldetik, planteatzen ditzakeen gaizkiulertu edo bi akats nagusi dakartza: “Arabako euskara” Araban hitz egiten den euskara bada; batetik, Araban bakarrik hitz egiten den hizkera da? Eta bestetik, Araba osoan hitz egiten den hizkera da?” (2020: 9). Termino horrek adierazi litzakeen baldintzok ez dira inongo beste dialektotan gauzatzen, beraz, izenak izen, araberarentzako definizio linguistikoa beharrezkoa da.

<sup>1</sup>Araberaren gaineko azterketen sintesi osatuago baterako ikus Urgell (2020) eta Eraña (2020).

## 1.2. Hizkuntza-egoerak

Hasiera batean dialektoari izaera propiorik eman ez zion arren, urteen poderioz iritziz aldatu zuen Zuazok, gorago azaldu bezala. 2012ko *Arabako Euskara* liburuan honakoak azaltzen ditu: berak proposatutako dialektoaren historia, zenbait ezaugarriren hedadura, eta Araba barneko hizkuntza-eremuak. Jarraian azalduko ditugu.

Mendebaldeko euskararen ardaztat jotzen du Araba, eta handik zabalduko ezaugarri batzuen hedadura mailatik banaketa bi egiten ditu: “eremu zabaleko berrikuntzak” eta “eremu murriztagoko berrikuntzak”. Baina isoglosa hauen hedaduraren banaketari ez dio azalpenik ematen, ez behintzat, azalpen kronologikorik.

“Eremu zabalekoei” dagokienez, Nafarroako Erresumako hausturarekin lotzen ditu, XI.-XII. mende inguruan, eta garai hartan hiri garrantzitsu zen Gasteiztik zabaldu zirela. Eraginak, Araban barrena, Bizkaira, Gipuzkoako Goierri, Urola eta Deba ibarrera, Nafarroako Burunda, Ameskoa eta Lanara, Errioxara eta Burgosera zabaldu zirela dio. Gure ustez, MEZarekin bat dator eremu hau. Bigarren multzokoak aldiz, eremu murriztagokoak izanik ez die jatorri hain garbirik ezartzen (2012: 3.1)<sup>2</sup>. XVI.-XVII. mendeetarako Bizkaiari izaera beregaina ematen dio, bitan banatuz (2012: 3.2).

Araba barruan, hizkuntz-eremu edo azpi-dialekto bi proposatzen ditu, toponimian oinarrituz: sartaldea eta sortaldea. Erdigune geografikoa sartaldearen barruan kokatzen du, nahiz eta batzuetan bien tartekotzat jo. Gasteizen erdalduntzearekin batera eremu nagusi bien arteko aldentzea izan zela diosku, eta sartaldeak Iruñearen eragin handiagoa izan zuela, baita Gipuzkoarena ere iparralderengo eremuan (2012: 3.4).

Urgellen (2020) arestiko artikulura joaz gero, metodologia arras desberdina dakusagu, nahiz eta emaitzetan antzekotasunak ere badiren. Honek, arabar jatorria duten berrikuntzek definitutako 3 hizkuntza-egoera proposatzen ditu, ardatz geografiko eta kronologikoak kontuan izanda: zaharrena MEZaren parekoa litzatekeen “makrodialektoa”, bigarrena “arabera” bezala aurkezten du, eta egoera modernoena “Araba sartaldekkoa” eta “Araba sortaldekkoa” bezala, bitan banaturik (2020: 12).

MEZa definitzeko 4 ezaugarri linguistiko hartzea proposatzen du:  $a + a > ea$  eta *egin* berrikuntzak dira nagusienak, baina bi arkaismo ere multzo honetara batu beharko liratekeela proposatzen du (ikus honetaz § 2.). Batetik *\*edun*-en subjektu 3. pertsonako adizkietako diptongoa (-*au*-, -*eu*-) eta bestetik -*rean* ablatibo-marka. Geografikoki, eremu

<sup>2</sup>Esan bezala, ez du kronologia baliatzen berrikuntzon sailkapenerako. “Eremu murriztagoko” berrikuntzen multzo honetako asko kronologikoki berankorrak direla esanez azal daitezke, are gehiago garai historikoan hedatuaz zihoazekin (-*eta* aditz-izena, -*z* pluralgilea, etab.).

zabal bat hartuko luke. Orain arte aitortu izan zaiona baino gehiago zabal litekeela uste du (2020: 17), gaur egun agerikoa ez den hizkeretan ere noizbait izan zitekeelako; horien artean Tolosaldea eta baita Gipuzkoako ipar-ekialdeko muturra ere.

Hurrengo hizkuntza-egoera *arabera* izendatzen duena da. Eragin-gune berrien sorreraren ondorioz MEZa zatikatu ondoren sortu zena. Beraz, Araba eragin-eremu (murrizago) bateko gune berritzaile bezala mantendu zen heinean genuke arabera dialekto:

Hasteko, esango nuke hizkuntza-ezaugarriek argi erakusten dutela —geroago aztertuko ditugu horietako batzuk— MEZ zatitu ondoko mendeetan ere Arabako gune berritzaileak, Gasteizek ziurrenera, zeresana izan zuela mendebaleko eremu zabaltxo baten euskararen bilakabidean, bertako euskarak sendo iraun zuen bitartean halako batasun bat gordetzeko moduan. Tarte honi deituko nioke nik “arabera” (Urgell 2020: 25).

Egoera honek XVI. mende amaierara edo XVII.-aren hasierara arte iraun bide zuen, Araba erdialdeko euskara gainbeheran etorri zen arte (Gasteizen arinxego). Gainbehera hau corpusaren kronologian legokeen etenarekin lotzen du, handik aurrerako lekukotasunak ez baitira eremu hartakoak (2020: 27).

Dialektoa linguistikoki definitzeko, bada, 3 ezaugarri motari erreparatu behar zaiela azalazten du. Lehenengo eta behin, MEZari legezkiokkeen ezaugarriak. Bigarrenik, eremu murrizago batekoak diren berrikuntzak. Hirugarrenik eta azkenik, Bonaparteren “bizkaieran” kokatu ezin diren ezaugarriak (2020: 20-21). Badaude Arabako lekukotasunek eta Debagoienako hizkerek komunean dituzten berrikuntza moderno batzuk (-*keta* aditz-izena eta pluraleko komuztaduraren galera, esaterako), hizkera biak lotzen dituztenak. Hori ikusirik, Debagoiena eta Goierri (batzuetan) arabera zenaren ezaugarrien gordelekutzat ditu, eta azterketaren barruan sartu beharreko hizkeratzat jotzen ditu (2020: 26).

Azkenik, esandako hirugarren hizkuntza-egoer(et)ara heltzen gara. Araba erdialdean euskara galtzearekin batera, aurreko dialektoaren ardatza eta motorea galdu zen, baita trinkotasunari eusten ziona. Sartaldean eta sortaldean dialekto-eremu bana eratzeraz iritsi zen, XVIII. mendean berriz ere lekukotasunak egotean nabari den legez, eta hizkerotako asko bazter-eremu bilakatuz zihoazen (2020: 28).

Urgellen iritiz (2020: 28-30), sartaldeko hizkera arinxego aldendu zen Gasteizko eragin-eremutik, Bizkaikoetatik hurbilago geratuz. Gure ustez kasu honetan, bai geografiak, eta bai historiak ere horren aldeko arrazoiak erakusten dizkigu. Gainera, lanean zehar aztertuko ditugun ezaugarrietako asko ere ez dira dokumentatzen hango

lekukotasunetan<sup>3</sup>. Hango lekukotasun modernoek, Bizkaiko hego-sartaldekoekin lotura arras handiagoa daukala ikusten da, Ulibarrik (2015) eta Gonzalezek (2020) azaldu bezala.

Sortaldean, euskararen egoera sartaldean baino makalxeagoa zela pentsatu daiteke, iritsi zaizkigun lekukotasunak ere urriagoak direlako. Hala ere, hemen berriz ere Gipuzkoa hego-mendebaldeko lurraldeak hizkera honetatik kanpo uztearen akatsa gogorarazten du Urgellek, biek ala biek partekatzen dituzten isoglosengatik (2020: 30). Lan honetan, hizkuntza-egoera hau arabera dela defendatuko dugu, gune berritzailea galdu zen arren, linguistikoki beronen jarraipen kronologikoa delako.

### 1.3. Corpora

Ez da erraza araberaren corpusaren kasua. Dialektoa definitu gabe egonik, lekukotasun batzuekin ez dago garbi nola jokatu behar den (batez ere aingura seguruz kokatugabekoekin), eta inoiz idazlea arabarra izatea hartu izan da irizpide nagusi. Hala ere, araberazko corpora ondo identifikatu ahal izateko beharrezkoa zaigu berau definitzea; bai geografikoki, bai (batez ere) linguistikoki.

Aurrekoarekin lotuaz, araberarena kasu berezia da euskalkien corpus-eratze prozesuan: berandu azaleratu izan zen lurralde honetako euskararen auzia, eta horren ondorioz, ordura arte aurkitutako araberazko testuak beste dialektokotzat hartu izan dira (Betolatza, Gaspar de Gamarra eta Juan de Luzuriaga kasu). Beraz, noizbehinka agertzen joan izan diren lekukotasunez gain, beste euskalkietan sailkatuak izan direnak ere gehituz joan zaizkio.

Hala ere, gero eta gehiago aurreratzen doan arren, ezin daiteke esan corpora aberatsa denik. Adiera bi ematen dizkio Urgellek (2020: 5), Lakarra (1997)-n esandakoak oinarri: urria eta asimetrikoa. Urria da, bai lekukotasun kopuruz, eta bai hauen luzerari dagokionez, luzeenak Lazarragaren eskuizkribua eta *Dotrinazko Sermoitegia* liratekeelarik. Bestetik, asimetrikoa da geografikoki zein kronologikoki: kronologikoki hutsune handia dago XVII. eta XVIII. mendeen artean eta geografikoki ere, ez da eremu guztien arteko parekotasunik.

---

<sup>3</sup>Badirudi gainera, badagoela Bizkaiko eta Arabako sartaldeak batzen dituen dialekto-eremu bat, Lakarrak (2014) Mendebalde Muturrekoa deitu zuena.



## 2. Dialektologia diakronikorako metodologiaz

Dialektologia diakronikoaren esparruan, beharrezkoa da zenbait irizpide eta metodologia berri aplikatzea euskalaritzan. Horietako batzuk hona ekartzea erabaki dugu, lanean zehar baliagarri izan zaizkigun auzi batzuk ekartzeko.

Caminok (2008) esaterako, “Dialektologiaren alderdi kronologikoaz” lanean berrikuntzen, arkaismoen eta hautuen gainean hausnartzen du. Bakoitzaren xehetasunak ekartzeaz gain, azterketa linguistiko batean eman behar zaien trataera eta pisua adierazten digu. Lanean baliagarri izan zaizkigun batzuk laburtuko ditugu:

Hasteko, berrikuntzak dira dialektoen funtsa; hizkuntza-egoera bat aldatu eta beronen dialektalizazioa eragiten dutenak. Baina berrikuntza guztiak ezin dira maila berean ezarri, hauen artean ere ezberdintasun ugari baitago. Adibidez, berrikuntzen aintzinasuna kontuan hartu beharra dago, zaharrenak baitira garrantzitsuenak tradizio honetarako. Hauek aurreko egoeraren lehen hausturak eta dialektoen banaketa genealogikoa erakusten dute, berrikuntza post-dialektalek eta batez ere berankorrek ez bezala (2008: 221-222).

Badira dialektoen arteko berrikuntza partekatuak ere. Hauek, hizkuntzaren dialektalizazio prozesuko momenturen batean, dialektook talde bateratua osatzen zutela frogatzen dezakete, hau da, lotura genetiko hertsia dute beste dialektoekin konparatuz gero. Froga dezaketela diogu, ez delako beti horrela. Badaude berrikuntza beregain deritzaten batzuk ere, harremanik izan gabe modu paraleloan sortutakoak, hau da, berrikuntza poligenetikoak. Fenomeno batzuek, batez ere zenbait bilakabide fonikok, beste batzuek baino izaera unibertsalagoa dute, eta errazago aurki daitezke bai dialekto desberdinetan, bai hizkuntza desberdinetan (2008: 218). Beraz, ez dute haien arteko lotura berezirik erakusten.

Halaber, Caminok, Calvert Watkinsen irizpidea ere badakar (2008: 3.3); haren arabera, berrikuntza positiboaren beste garrantzia izan dezakete berrikuntza negatiboek, hau da, beste dialektoen kontra, ezaugarri jakin bat galdu izana.

Arkaismoei dagokionez, hauen ulerkera desberdinak daude: hizkuntzalaritzaren tradizioan, hizkuntza egoera zaharrago batetik gorde diren ezaugarriak lirateke, hau da, berrikuntza ez den oro (ikus aurrerago Petitez). Dialektologiaren aldetik aldiz, geografia-eremu gehienez galduta dagoen aurreko egoerako elementua litzateke. Delako arkaismoa eremu geografiko batean edo hizkuntza aldaera batean bizirik dagoena eta sistematikoa dena izan daiteke, edo baita ezaugarria sistematikoa eta emankorra ez denean, eta modu bakanean han-hemenka agertzen dena (2008: 5.1).

Arkaismoek, orokorrean, ez dute dialektoen egituraketa genetikoaren informazio espliziturik ematen, eta arkaismoak partekatzeak, berez, ez du jatorrizko hizkuntza komunaz gaindi inongo lotura genetiko edo hizkuntza egoera bateratu erakusten, forma zaharrak gorde dituztela soilik. Hala ere, arkaismoen erabilera positiboa aldarrikatzen dute Ruipérezek (1953: 255 in Camino 2008: 237) eta Watkinsek (1966 in Lakarra 2014: 175): arkaismo partekatuek ez dute baliorik, aurretik esan bezala, baina elkarren ondoko dialekto batzuek arkaismo multzoak konpartitzen badituzte, lehenagoko erkidego espezifiko baten existentziaren erakusgarri izan daiteke, batez ere, arkaismo horiek eskusiboak direnean gainontzeko dialektoekiko.

Azkenik, hautuak ditugu. Aintzinako hizkuntza egoeran gauza bat adierazteko posibilitate bat baino gehiago egotean gertatzen dira, eta dialekto bakoitzak horien artean egiten duen jokabidean datzate (Camino 2008: 226). Euskalaritzan hainbat bider erabili izan dira dialektoen une jakin bateko banaketak azaltzeko: *egin* / *\*ezan* / *\*iron*, *\*edutsi* / *-i(n)-* / *\*eradun*, *-ta* / *-a* / *-rik*<sup>4</sup>,... Hala ere, euskalaritzatik kanpo ez dira oso erabiliak (hizkuntzalaritza historikoko eskuliburu askotan ez dira aipatu ere egiten), eta Lakarrak (2014: 172-177) azaldu bezala, berrikuntza kateen bidez azal daitezke, batez ere Meiden eredutik abiatuta. Hargatik, ez zaizkigu baliagarri dialektologia diakronikoaren ikuspegitik lan egiteko.

Lakarraren 2014ko “Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreiraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz” artikuluan, izaera metodologikoa duten hainbat adierazpen eta tradizio aurreratuenetako metodologiaren erakusketak eta erabileraren beharra aldarrikatzen da; horrenbestez, proposatutako irizpide metodologikoen aplikazio praktikoa eta eraikitzeke dagoen hizkuntz egoeraren gaineko hausnarketak dira jomuga nagusi. Guk, metodologikoki eginiko ekarpen batzuk ekarri ditugu hona, gure lanean hauen gainean ere jardun baitugu han-hemenka.

Tradizio aurreratuenen (batez ere IEren), eta bere ustez euskalaritzak hartu beharko lituzkeen metodologiez hitz egitean, adarkatze bitarraren garrantziaz dihardu Lakarrak. Tradizio garatuetan honen erabilera usukoa dela markatzen du, adibidez indoeuropear, austronesiar, bantu eta kartveliar familietako azterketa diakronikoetan eta, oro har, aitzinhizkuntzen berreraiketan. Euskaran aldiz, egin izan diren euskalkien sailkapenetan kronologiari (absolutoari zein erlatiboari) garrantzia gutxi eman izan zaio, eta ez da orain arte adarkatze bitarra erabili dialektoon banaketarako (2014: 3.1).

<sup>4</sup> Lehenengo bietaz Lakarrak ematen ditu xehetasunak (2014: 3.2 eta 2014: 4.6, hurrenez hurren). Hirugarrena geuk jarri dugu, argi geratu dadin ez dela soilik adizkietako kontua.

Bestalde, datuen lanketara begira, Daniel Petit (2007 in Lakarra 2014: 172) oinarrian harturik, arkaismo eta berrikuntzen azterketarako I Eren ikerketan izan diren 3 bide nagusiak azalarazten ditu: genealogikoa, geografikoa eta kronologikoa. Hirugarrenak, Meidenak, aintzat hartzen du aitzinhizkuntzak ere, hizkuntza biziak bezala, ez ziratekeela homogeneoak izango, eta hauetarako ere 3 eratako ezaugarri linguistiko proposatu zituen (1975): arkaismoa, norma eta berrikuntza, hauen arteko konbinaketa litzatekeelarik dialektoak definitzeko gakoa.

Orobat, Andrew Garrett (1999 in Lakarra 2014: 3.4) jarraituz, aitzinhizkuntzen adarkatzeetan egindako nolabaiteko anakronismoak erakusten ditu, hauek eratzean ideologiak izan zuen eragina ohartuaz. Lakarraren iritziz, euskararen kasuan ere badira antzekotasunak: lurralde historikoei lotutako dialekto zenbaiten kasuan, lurraldeen antolaketa politikoaren eta egungo hizkeren izaeraren arabera begiratu izan zaie dialekto historikoei, hauen moldeetara sailkatuaz. Honetan argigarria da Bonapartek eta bere jarraitzaileek euskalkiei eman izan dien “talde estankoen” trataera (Lakarra 2014: 8. eranskina). Lanean zehar pisua izango du auzi honek, eta gure ondorio nagusietako bat ere honekin lotuta dago (ikus § 5.).

Linguistikoki definitu beharraz jarduten duenean (2014: 4.1), EBZren beharrezkotasuna erakusten duten argudioak bilatu eta zehaztu behar direla markatzen du, hau da, EBZ AEtik (AEMtik) bereiziko lituzkeen berrikuntza linguistikoak, alegia. Horretarako, Mitxelenaren AEn ez leudekeen eta euskalki guztietan aurkitzen diren (edo aurkitu beharko liritekeen) ezaugarriak erakutsi beharra legoke. Gai hau araberara estrapolatzen dugu, lanaren helburu nagusietako bat dialekto zahar honen definizio linguistikoan sakontzea baita.

### **3. Aztertutako corpusa**

Azterketa saio honetarako aukeratu dugun corpusaz hitz egiten hasi orduko, lanaren gaineko eta lekukotasunen aukeraketaren zehaztasun batzuk eman behar ditugu lehenengo.

Hasiera batean, Euskal Herritik kanpo argitaratutako lekukotasunen azterketa bat egitea zen gure asmoa, eta ea “EH-tik kanpoko batuaren” ideiak (Sarasola 1983 in Lakarra 2014) norainoko egiazkotasuna zeukan (ikus 5.6.). Hiru lekukotasun aukeratu genituen: Sevilla1619, Iturberen poesia eta Perun argitaratutako 1761eko poesia bat, Lohmann Villenak 1956an argitaratutakoa.

Alabaina, azterketaren nondik norakoek araberari buruzko lana egitera eraman gaituzte. Araberarekin lotuak izan direnez, Sevilla1619 eta Iturberen poesia baliagarri izan zaigu hala ere, eta Portalekin batera corpuseko 3 lekukotasun kokatugabeak osatzen dituzte. Beste bostak Araban kokatutako lekukotasunak dira: Betolatza izen bereko herrian, Landucci Gasteizen (A eta C eskuak, B ekialderagokoa litzateke), Lazarraga Larrean, Albeniz Araian eta Gamiz Sabandon.

## 4. Analisia

### 4.1. Ezaugarriak

#### 4.1.1. $a + a > ea$

Zuloagak fenomeno honen deskribapen xehea egiten du bere 2020ko tesian. Kronologikoki, Euskal Herriko mendebalde zabalean hedatutako berrikuntza garrantzitsu zaharrenetarikoa litzateke, eta Mendebaldeko Euskara Zaharraren ezaugarri esanguratsuenak. Geografikoki, Araba, Bizkaia, Gipuzkoako mendebalde gehiena (ekialderantz zehazteke leudeke isoglosa historikoak) eta Nafarroa mendebaldeko ibar batzutan dago dokumentatua. Ezaugarriari dagokionez, morfofonologiko bezala deskribatzen du (2020: 214), eta adizki eta hitz barruan sortzen direnak aparte utzi behar direla argudiatzen du, bilakabide fonetikoaz gain, singularrari hertsiki loturiko bilakabidea delako: artikularekin ez ezik, singularreko sistema gehienez gertatzen da. Adizkietako bilakabide fonetikoak aurrerago azalduko dugu (§ 4.1.7.)

Espero zitekeen modura, bertan aztertutako testu guztietan ageri da berrikuntza zahar hau, nahiz eta batzuetan salbuespenak<sup>5</sup> badiren. Horretaz gain, berrikuntzaren fokua Arabako Lautada inguruan kokatzearen alde zenbait argudio dago, berrikuntzaren hedapen geografikoa eta Lazarragarengan inon baino zabalago izatea kasu: *-au* artikulua hurbilari lotutako  $a + au > eau$  (*musiqueau* AL:1144v);  $ia + a > iea$  (*historieac* AL:1138v) edota agian analogiaz soturiko  $a + o > eo$  (*doncelleoni* A21:35) (Zuloaga 2020: 250-254).

#### 4.1.2. *egin* laguntzailea

*egin* laguntzailearen gramatikalizazioa MEZetik datorren azkenengo berrikuntzetarikoa litzateke Zuloagaren (2020: 493-494) ustez. Honek izaera iragankorra dauka, eta *\*ezan*-ekin batera edo azken hau ordezkatzuz agertzen da. Bere sortze eta

<sup>5</sup>Gamizengan badira salbuespenak, baina bere bizitzaren zati handi bat Iruñean pasatu izanari eta errimaren beharrei egotzi ahal zaizkio. Hona *Dabilcenchoac* poemako adibide batzuk: *lotza* (4), *fortuna* (25), baina *eriotzea* (67) eta *iltzeaquin* (108).

hedapenean, partizipioaren hedatzearekin hertsiki loturik bide dago, Mounolek (2007: 115-117) azaldu bezala, eta foku geografikoa Araba inguruan daukala esatea da ziurrena; hango lekukotasunek (nahiz eta hauek nahi baino urriagoak izan) erakusten baitute aurrerapen handiena euskararen historiaren hasieran.

Erabilerari dagokionez, indikatibozkoak ez diren datibodun adizkiekin lotura handiagoa du, eta hirupertsonaletan zabalera handiagoa hartzen du bipertsonaletan baino, Gipuzkoako mendebalde zabal batean esate baterako (Lakarra 1985: 254-258). Euskara Arkaikoan jada, horietako baatzuetan eksklusiboa da *egin*-en erabilera Mendebaldeko testuetan (Mounole & Lakarra 2018: 433). Antzeran jokatzen du *\*erazan* laguntzaileak Nafarroako eremu batean, aditz hirupertsonalaren lekua betetzen duen heinean.

Gure corpusari dagokionez, *egin* erroko laguntzailerik aurkitu ez dugun testu bakarrak Sevilla eta Iturberenak dira, baina testuingururu aproposik ere ez daukate. Besteetan, ez dira arraroak: *vadayt bere* (Lcc. 266 v.), *jan eguiçu* (Port. 39), *barcatu deiztala* (Alb. 169), *euqui eguizu* (Gam. “Dabilcenchoac” 59), nahiz eta Lazarraga eta Albenizengan *\*ezan*-enak ere izan: *topa neçan* (Laz. B16:21-25), *admitidu zazu* (Alb. 173).

#### 4.1.3. *-rean* ablatiboa

Urgellek (2020) *-rean* ablatibo marka ere MEZ-aren ezaugarritzat hartu beharko litzatekeela dio (§ 1.2.), nahiz eta hau arkaismotzat jo. Hala eta guztiz ere, ez dago garbi *-rean* EBZ-ko arkaismotzat ala MEZ-eko berrikuntzat hartu beharko litzatekeen. Batera zein bestera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dokumentatzen da. Hala ere, adierazi beharra dago Gipuzkoako testu gutxitan dokumentatu izan dela deklinabide marka bezala, eta hauek mendebalderengo eskualdeetakoak direla: Debakoa izan daitekeen Sasiolarengan (*urrunerean* B30:26, *O[e]reanic* B33:1) eta *Milia Lasturkon* (*cerurean* 9, 27). Gainontzeko lekukotasunetan, fosildutako formetan edo hitz solteren baten agertzen dira (*Sumario Breve*, Elduaingo ziri-bertsoak,...). Beraz, maila bitan banatu daiteke *-rean* ablatibo marka: batetik, Gn *fase spatitan* dagoen arkaismoa, eta bestetik, Bn eta An norma bezala erabilia (§ 2.)

Lekukotasun arkaikoetan forma andana aurkitu dugu, eta polimorfismo handiena Lazarragan daukagu. Gainera, Mendebaldeko ablatibo eta prosekutiboaren arteko nahasketaren lehen zantzuak ditu (Bilbao et al. 2020: 3.3.6.): *-rean*, *-rik* (*conbenturic conbentu* B15:85 fosildutako egituran), *-reanik*, *-tika* (*Gaztelatica jentil onbre bat / orayn etorri ey jacu* A12:1-2), *-tik* (birritan Sasiolaren zatian: *mundutic goacenean* B30:90-94) eta *-ti* (*canputi* (AL:1152v)). Landuccirenean oro har Mendebaldeko formak (*-rean*; *-rik*

fosilduta, Lazarragak bezala; eta *-ti*) jarraitzen ditu, baina B eskua horietatik urrundu egiten da: *-tika* dakar behin (*lecutica lecura*) eta *-tik* birritan (*batetic eta bestetic*) (Zuazo 1989:27). Betolatzak bestalde, *-rean* bakarra (eta markagarria) dauka (*hilaren arterean*), eta besteak *-ti* eta *-rik* formen bidez egiten ditu.

Idazle modernoagoek ez daukate hain polimorfismo handia, eta gehienez ere bi forma dakartzate: Albenizek *-rik* eta *-tik* erabiltzen ditu; Gamizek *-tik*, baina behin *-ti* (*aspiti* “Euscaraz gaiztoelan” 32); Iturben eta Sevillan *-tik* (*aldeti* 35) eta *-rik* (*urruni* 9) bana, hurrenez hurren; eta azkenik, Portalek *-rika* (*pobreçarica* 67). Azken hau beste guztietarik bereizten da, eta forma berberak darabiltza partitibo (*guiçonica* 51) eta partizipioetan (*jansirica* 61). Hala ere, Lazarragarengan *-rika* partitiboa bada (*arturica bisitea* B15:77), eta *-tika* ablatibo markak ere horrenbeste ez urruntzera eramaten gaitu.

#### 4.1.4. \**edun* adizkietako erroak

Euskara historikoan \**edun*-en adizkietako erroak forma ugari izan ditu hizkeraz hizkera. Bonaparterengandik hasita erabili izan den banaketa sinkronikoan, *-o-* “bizkaierari”, *-e-* “gipuzkerari”, *-u-* “goi-nafarrerari” eta “nafar-lapurterari” eta *-ü-* “zubererari” lotu izan zaizkio (hautaz gain *-eu-* erroa ere bada Araban eta Gipuzkoan). Baina azken urteotan ikuspegi diakronikotik egiten ari diren azterketa sakonagoen bidez, bilakabide konplexuagoa nabari da, Lakarra eta Urgellek (2008) egindako zuhaitzean ikusi daitekeen bezala. Urgellek (2020) 3. pertsonako erroetako diptongoa, hau da, *-au-* edo *-eu-* erroak izatea, MEZ-eko arkaismotzat hartu beharra defendatzen du (§ 1.2.).

Are urrunago joanez gero, *-eu-* erroarekin bi joera antzeman daitezke: lehenik, A eta G lotzen ditu, Btik bereiziz. Bestetik, A eta Gren arteko desberdintasunak ageri dira: Gn 3. pertsonakoetan gorde da diptongoa; An oster, 1. eta 2. pertsonakoetan ere bada. Horren adierazle dira Lazarragaren *deut*, *deudan*, *deuc*, *deu*, *deban*, *deben* (Bilbao et al. 2020: 12. taula); Albenizen *deut* (170), *deudan* (171), *neven* (170).

*-eu-* erroaz gain, erro poliformismoa hartu izan da Aren ezaugarritzat, eta hala da gure corpusean ere. *-o-*, *-e-*, *-eu-* eta *-u-* erroak dira, nahiz eta lekukotasun bakoitzean banaketa desberdina izan: *duçu* (Lcc. 251), *çeban* (Itur. 41), *deçu* (Port. 7), *dodan* (Alb. 168).

#### 4.1.5. Asimilazioak \**edin*-en adizkietan

Lakarrak (1986: 661) aspaldi esan bezala, Bn lehen testuetarik gertatzen da *-adi* / *-edi* > *-idi* asimilazioa \**edin* aditz laguntzaileetan, baina ez da Bren berrikuntza eskusiboa; An eta Gn ere dokumentatuta baitago zenbait idazletan, nahiz eta bikoiztasuna egon: Irazusta

eta Otxoa Arin gipuzkoarretan, eta Landucci, Lazarraga eta Betolatza arabarretan. Hauetaz gain, Caminok (2019: 4.9.4) dioenez, Beriainen ere agertzen da asimilazioa. Hedadura geografikoa eta bilakabidearen nolakotasuna kontuan izanik, poligenetikoa izan daitekeela uste dugu.

Aipatutako Arabako hiru testuez gain, ez dugu aztertutako gainerako testuetan honen adibiderik aurkitu: Gamiz (*zaiste* “Dabilcenchoac” 40) eta Albenizen (*zadiz* 167, 168 eta *estadin* 168) testuetan asimilazio gabeak daude. Portal, Sevilla eta Iturberen testuetan aldiz, ez dago ez asimilaziodun ez asimilazio gaberik, beraz, ezin daiteke jakin bere hizkerek nola egingo zuketan.

#### 4.1.6. Txistukarien sabaikaritzea

Euskal Herri osoan zehar, bi palatalizazio mota daude: fonetikoa eta semantikoa. Mendebaldean, aldiz, hasieratik fonetikoa baino ez da agertzen, eta beste hizkeretan baino indartsuago gainera. Txistukarienari dagokionez, Zuloagak (2020: 181-182) bokalerdiaren ondoren bokalaren ostean baino zaharrago dela azaltzen du, eta Erdi Aroko toponimian XIII. mendetik agertzen zaigula. Orotara,  $Vj + z > V(j) + x$  eta  $Vj + tz > V(j) + tx$  dira bilakabideak, nahiz eta frikarietan indartsuago bide zegoen lehen lekukotasunetan. Geografikoki Bizkaia eta Araba erdi-mendebaldea hartzen ditu, eta Debagoienan eta Lautadaren mendebaldean ere agertzen da (Barrundia), baina hauetan jada ez da sistematikoa. Beraz, MEZ-a zatitu ondorengo ezaugarria litzateke, eta sorgunea ez dago garbi Bizkaian ala Gasteiz aldean kokatu beharko litzatekeen (Zuloaga 2020: 563-564). Hala ere, lekukotasunen banaketa ikusita, lehen aukeraren alde egiten dugu, Bren berrikuntza izan zela, eta Ara difusio-eredu hierarkikoaren bidez zabaldu zitekeela.

Aipatutako eremu-geografikoari jarraiki, Landucciren hiztegiko A eta C eskuek, Betolatzak eta Lazarragak lukete, azkenak bietara jokatzen duen arren<sup>6</sup>: *nax* (Laz. AL:1153v), *gacheâ* (Lcc. 228), *Elexa* (Betol 2v),... Beste guztiek, ez dute mota honetako sabaikaritzetik bere testuetan: *ayzaracea* (Lcc. 238), *gaycic* (Laz. A27:1-2), *Eliçaco* (Por. 65), *damugaiza* (Itur. 37), *ezpanaiz* (Alb. 169),...

#### 4.1.7. $a + a > ea$ adizkietan

Zuloagak (2020: 254) proposatu legez, singularreko bilakabide morfofonologikotik bereizi beharra dago adizkietan gertatzen den  $a + a > ea$ . Ez dauka balio semantikorik,

<sup>6</sup>Lazarragaren kasuan ez da sistematikoa, eta hitz jakin bakoitzak bere banaketa dauka. Sakontasun gehiagorako ikus Zuloaga (2020: 4.2).

beraz, eta bestea ez bezala, bilakabide fonetikotzat hartu beharra dago. Gehienbat hiru adizkitan agertzen dela diosku: *izan*, *joan*, *eroan*, nahiz eta Bilbon *egon* eta *\*edun*-en ere dokumentatuta egon (eta *\*-io-* aditz bitan *DotSerm*-en).

Lehen lekukotasunetarako dokumentatzen bada ere, singularreko bilakabidea baino modernoagotzat jotzen du, zenbait arrazoirengatik: hedadura geografiko txikiagoa – Btik kanpo, Deba ibarrean baino ez dago, eta sistematikotasun gutxirekin; bestalde, An testu gutxi batzutan baino ez – eta adizki jakin batzuetara lotua gainera. Azkenik, berrikuntzaren fokua Bilbo ingurukoa izan litekeela proposatzen du (2020: 5.2.3.1), Bizkaian baino ez delako sistematikoa, eta hiriburuko testuetan (Mikoleta eta *Enojaduric*) agertzen direlako zabalduen.

Ezaugarria Lazarragaren eskuizkribuan baino ez da agertzen aztertutako copusean. Hona adizki bakoitzeko adibide bana: *garean* (A28:141), *joean* (AL:1138v), *neroean* (B12:7). Esan bezala, gainontzekoetan ez da lekukotzen: *çirâ* (Por. 49), *siran* (Sev. 5), *zaran* (Alb. 170), *noanean* (Gam. “Beste tunucho berri bat” 4), *doana* (Lcc. 234 v.).

#### 4.1.8. Sudurkaritasuna

Orokorrean, ez da gai erraza bokal sudurkariena, grafikoki ez ohi zirenez markatzen, ez da erraza zein hizkeratan zeuden jakitea. Garibai eta Madariagari esker, Bizkaian XVI. mendean badakigu bazirela, eta Kapanagari esker XVII. mendean Bizkaiko ekialdean (Mounole & Gomez 2018: 497).

Begirada Arabara zuzenduz gero, ez da grafikoki islatzen duen testurik. Hala ere, Bizkaiko testigantzek, eta Araba ipar-mendebaldean ia *DotSermera* arte iraun izanak (ikus Ulibarri 2015: 47-48), bertan ere garai historikoan bazirela pentsatzeko arrazoiak ematen ditu. Hala da Lazarragan (Bilbao et al. 2020: 94). Baita Landuccin ere: italiarraren hiztegian agertzen den *reina* – *erreguia* (311) itzulpena, bokal sudurkarien presentziaren aldeko argudio on bat dela deritzagu. Hauetaz bietaz gain, Ulibarrik (2011: 375) litezkeen bi aurkitu zituen Sevillakoan: *ascoeaq* (60) eta *sermoe* (101).

Azkenik, Zuloagak (2020: 208) azaldu legez, askotan, bokalen sudurkaritasuna argitzeko gerora izan duten garapena hartu behar da kontuan: “Grafiaz harago bokal sudurkarietaz gutxieneko segurtasunez hitz egiteko irizpide bakarra da ustez bokal sudurkaria duten forma zaharrek gerora zer-nolako forma hartu duten aztertzea”. Honetan, berrikuntza interesgarria izaten da kontsonante sudurkariaren berrezarpena: hizkera



askotan -î# testuinguruan gertatzen da; Mendebaldeko hizkeretan *îṼ* hiatoan ere<sup>7</sup>.

Araberaz berrikuntza honek ez du bizkaieran beste indarririk, ez baita testuinguru guztietan agertzen, are gutxiago sistematikoki. Aztertu ditugun testuen artean, Betolatza da gehien agertzen duena (*christiñau* “Principio” 1, *oraciñoac* “Las oraciones” 2, baina *usay eguitea* “Sentiduac gorpuzecoac dira bost” 4, *comunioa* “El Credo” 26). Debagoienan ere, Arabako lekukoek baino gehiagotan izan arren, ez dute bizkaierak adina zabaldua (Zuazo 2017: 30-31).

#### 4.1.9. *-ain / -an* eta *-uin / -un* amaierak

Mitxelenak Landucciren hiztegiaren edizioa egitean, haren euskara Btik bereizten zuen ezaugarri nagusietako bat *-ain* eta *-uin* diptongoak gordetzea zela markatu zuen (1958: 28). Desberdintasun dialektal handi bat ez den arren, arreta biztu digu, eta tartetxo bat ematea iruditu zaigu. Aztertutako lekukotasunetan amaierok diptongoarekin agertzen ohi dira, eta Betolatza eta Gamiz dira *-an* eta *-un* egiten duten bakarrak: *ganeti* (Bet. “Los mandamientos de la ley de Dios en bascuence” 39), *bigundu* (Gam. “Dabilcenchoac” 40), *ezpanac* (Gam. “Dabilcenchoac” 95). Landucci (*ezpaina* 240, *muyn* 240), Lazarraga (*gañeti* A28:44), Portal (*gañean* 43) eta Albenizek (*gueñean* 171) diptongoa egiten dute. Sevilla eta Iturberenean ez dago adibiderik.

#### 4.1.10. Soziatiboa

Lehen testuetarik agertzen da Mendebaldean hain ezaguna den *-gaz* soziatibo singularreko marka. Araban sortutakotzat du Zuazok (2016), gero Bizkaira zabaldu eta sendotu dena. Bizkaia eta Arabako sartaldean *-gaz* marka bakarra da, baina erdialde eta sortaldean (batez ere Araban) *-kin* -ekin batera agertzen da.

Aztertu ditugun testuen artean, Portal eta Sevilla1619 dira *-kin* marka baino ez daukaten bakarrak, baina Iturberen testuko *-gaz*-en adibideak ere, zein testuingurutan agertzen diren markatzea beharrezkoa deritzagu: *zugaz* (43) eta *Mallorca Mellorcagaz* (69). Batetik, *zu* izenordainari loturik, eta Urgellek (Urgell 2020: 23) azaldu bezala, izenordain eta erakusleak dira gordetzaileenak izaten direnak. Bestetik, soziatiboko koordinazio egitura baten, Euskara Zaharraren garairako fosilduta beharko lukeena. Beraz, atzizki honek Iturberen hizkeran zukeen emankortasuna ez dago argi jakiterik orain arteko datuekin.

<sup>7</sup>Hauen bilakabideari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus Ulibarri (2015: 47-49).

Beste idazleen artean bada *-gaz* marka singularra<sup>8</sup>: *beguiaz* (Lcc. 298), *bandereagaz* (Laz. A1:17), *agoagaz* (Bet. “Sentiduak gorpuzecoac dira bost” 3), *ceñegaz* (Alb. 172),... Baina baita *-kin* marka ere, Betolatzen izan ezik: *criadoreaquin* (Alb. 167), *laztanarequin* (Laz. B30:3), *iltzeaquin* (Gam. “Dabilcenchoac” 108). Bestalde, pluraleko *-akaz* Lazarraga eta Betolatzen baino ez dago: *beguyacaz* (Bet. “Sentiduak gorpuzecoac dira bost” 1), *çorroçacaz* (Laz. AL:1153r).

#### 4.1.11. Genitiboa

Bada genitiboan Euskal Herriko mendebaldean gainerakoarengandik bereizten duen ezaugarri bat: gainontzeko dialektoetan genitibo singularra *-aren* atzizkiaren bidez adierazi izan da lehenengo testuetarik, Mendebaldean ordea, *-aen* eta *-en* izan dira formak (nahiz eta *-aren* ere agertu inoiz). Mendebaldeko genitibo singularreko forma zaharra *-aen* zen, eta bokal multzoen soiltzearen ondorioz *-aen* > (*-een*) > *-en* gertatu zen, singular eta pluralaren arteko bereizketa morfologikoa galduz (Mounole & Lakarra 2018: 425). Bestalde, zenbait idazletan araberezkotzat hartu izan den *-an* marka ere dokumentatu da. Hau singularrean zein pluralean erabili izan da.

Lazarragaren eskuizkribuan polimorfismoa da nagusi, *-aren*, *-aen*, *-en* eta *-an* (behin bakarrik, Sasiolaren zatian) formak biltzen baitira (Bilbao et al. 2020: 133). Landuccirengan *-an* da forma bakarra, eta Betolatzarenean *-en* nagusi, baina *-aren* ere badu (*goycoaren* “Ave Maria” 9). Albenizen testuan *-aren* da singularreko forma nagusia, nahiz eta *-an* forma ere izan singular eta pluralean. Gamizek aldiz *-en* bakarra du, besteak *-an* dira. Azkenik, Sevilla1619 (*Jaunaren* 19), Portal (*Iangoycoaren* 78) eta Iturbe (*Jaunearen*, izenburuan) Mendebaldetik urruntzen dira ezaugarri honetan, *-aren* baita forma bakarra.

1. taula. Genitibo singularreko formen banaketa lekukotasun bakoitzean

	Lcc.	Laz.	Bet.	Alb.	Gam.	Port.	Sevill.	Itur.
<i>-aren</i>	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai
<i>-aen</i>	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
<i>-en</i>	Ez	Bai	Bai	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez
<i>-an</i>	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez

<sup>8</sup>Mitxelena (1958) Landuccin ikusi ez zuen arren, *-gaz* > *-az* gisa agertzen da sozietiboko marka.

#### 4.1.12. Erro ditransitiboak

Euskaraz, hiru erro nagusi erabiltzen dira aditz laguntzaile ditransitiboetarako: *\*edutsi*, *-i(n)-* eta *\*eradun*. Ikuspegi sinkronikotik hautuen bidez azaldu izan da hau, baina ikuspegi diakroniko batetik, berrikuntza kate bezala azaldu behar dira (§ 2.): Lakarrak (2014: 198) aditz laguntzaile hauetarako egin zuen eskema jarraituz, *\*eradun* eta *-i(n)-* orokorrak ziratekeen, beraz, EBZko berrikuntzat hartzekoak.

An eta Bn baina, beste banaketa bat ageri da: *\*edutsi* erroa gehitzen da, eta aurreko bien galera partzial, oso, edo eza lurraldearen arabera. Euskara historikoan ia *\*edutsi* bakarrik dokumentatzen da Bn; eta *-i(n)-* eta *\*edutsi* Araban. Aipatutako erroez gain, lan honetan beste batzuk ere izango ditugu kontuan: gaur egun Debagoienan eta Lazarragarengan dokumentatzen direnak (ikus § 4.1.18 eta § 4.1.19.).

*\*edutsi*-ren jatorriari dagokionez, hipotesi nagusi bi ikusten ditu Zuloagak (2020: 568): Bizkaiko berrikuntza izatea, bertan bakarra eta sistematikoa delako, edo Gasteiz aldetik hedatu izana, Debagoiena eta Araba ekialdean ere badelako (nahiz eta polimorfismoa egon). Ziurtasunez esan daiteke ez dela MEZekoa,  $a + a > ea$  eta *egin* ezaugarriek baino eremu murriztagoa baitauka, honen barne zatiketarekin lotu beharrekoa da.

*\*edutsi* erro ditransitiboa aztertutako testu gehienetan agertzen da, Portal eta Sevilla<sup>1619n</sup> izan ezik. Bestalde, lekukotasunaren izaera dela eta, Landuccirengan ez da aditz ditransitiborik agertzen, baina hizkera honetan ere *\*edutsi* erroa agertzea esperoko genuke. Hona zenbait adibide: *deusuguz* (Bet. “Salve Regina” 8), *dust* (Gam. “Dabilcenchoac” 119), *deusa* (Itur. 35), *deuso* (Laz. A25:55),...

#### 4.1.13. *-adu* eta *-idu* partizipioak

Lehen testuetatik agertzen zaigu beste berrikuntza bat, mailegu zaharrak (latinarenak) eta berriak (erromantzearenak) bereizten dituen: mailegu berrietarako *-adu* eta *-idu* partizipio markak erabiltzen dira, eta zaharretarako *-atu* eta *-itu* (Mounole & Lakarra 2018: 428). Bizkaian, Araban eta Gipuzkoa mendebaldean (Deba ibarra, Urola aldea eta Goierri) lekukotzen dira. Hedadura geografikotik eta lehen lekukotasunetatik dituen agerraldietatik abiatuta, berrikuntza zaharra dela ondoriozta dezakegu, nahiz eta MEZaren ondorengoa.

Aztertutako corpusean Landucci, Lazarraga, Albeniz eta Betolatzarengan agertzen da (1-4). Portal, Sevilla, Gamiz<sup>9</sup> eta Iturberengan ez (5-8):

<sup>9</sup>Iruñean emandako urteen eraginez izan daiteke hau, arraroa baita araberazko lekukotasun batean ez agertzea. Are gehiago berrikuntza berankorrak dituenan.

- (1) *guiar – guiadu* (Lcc. 279).
- (2) *Jaio azquero serbidu deut:* (Laz. A19:3-6).
- (3) *ceñean becataria etorten dan zugana arrepentiduric* (Alb. 170).
- (4) *Sâtificadua içaindila çure içena* (Bet. “Pater Noster” 3).
- (5) *hauitua mudatua* (Port. 6).
- (6) *visitatu situan* (Sev. 7).
- (7) *guztiz cumplitua* (Gam. “Dabilcenchoac” 96).
- (8) *gaizqui trataturiq* (Itur. 78).

#### 4.1.14. -z pluralgilearen hedatzea

Euskaraz, orokorrean, pluralgile ugari da adizkietako komunztadura egiteko. Mendebaldeko hizkeretan baina, -z pluralgilea nagusitu da erabat, eta hainbat errotara zabaldu gaur egunean: *\*edun, \*edin, eduki, etorri, joan, ekarri, egon, \*edutsi, egin, eroan, jakin, ibili, izan* (Zuazo 2017: 49-50). Hedatze hau, absolutibo kasuko testuinguruetara egin da, hau da, nominatibo (*\*edin, etorri, joan, egon, egin, ibili, izan*) eta akusatiboetara (*\*edun, eduki, ekarri, \*edutsi, egin, eroan, jakin*). Euskara Arkaikoko zenbait testutan nabaritzen dira zabaltze honen hastapenak, *\*edun* eta *\*edin*-en adizkietan (azken honek mendebaldeaz gaindiko hedadura zabalagoa hartzen du) hain zuzen. Hala ere, berrikuntza oraindik hastapenetan dago.

Halaxe da aztertu ditugun idazleetan ere, gehiago ala gutxiago izan, gehienetan nabari da pluralgile honen hedapena. Hala ere, markagarria da araberazko lekukotasun gehienetan *-de* (> *-re* batzuetan) gorde dela *egon*-en adizkietan.

#### 4.1.15. -eta eta -keta aditz-izenak

*-eta* eta *-keta* aditz-izenak dira, euskarazko aditz-izenen artean modernoak, jatorria zein duen kontuan izanik: toponimiako atzizkiak eta kasu lokatiboetako plural markaren berbera (Mitxelena 1971 in Urgell 2006: 932). Tradizionalki *-eta* eta *-keta* aditz-izenak bereizi diren arren, Mitxelenak (1971: 244-246) proposatu zuen jatorriari dagokionez ezin daitekeela bata bestetik oso urrun egon, eta testuinguruaren araberako txandakatze bat litzatekeela. Gauzak horrela, bere ustez aukera bi egongo liriteke hau azaltzeko:

La alternancia *-eta / -keta*, ya que sería pecar innecesariamente contra la sencillez al atribuirles distinto origen, podría recibir en principio dos explicaciones, muy diferentes la una de la otra. Según una de ellas, que se puede apoyar en alternancias similares de otros sufijos (*-(k)izun, -(k)unde, -(k)untza*, etc.), una consonante inicial se habrá perdido en contextos de máxima apertura. Conforme a la otra, un tanto rebuscada aunque no imposible, *ametz-eta-n* pasaría por interversión a *\*ameztetan* (cf., acaso, *Ariztelussa* en Roncesvalles, 1284), disimilado luego en *Amezketan*. La generalización de *-eta* en la declinación y su conservación residual en algunos topónimos nada tendría de innatural. (Mitxelena 1971: 245).

Bide horretatik jarraituz, honakoa proposatu zuen Urgellek (2006: 934-936): berrikuntza *-(k)eta* litzateke, eta testuinguruaren arabera, bataren edo bestearen alde egingo zen. Bada, bokalaren ostean *-eta* zenez, eta *-tu* partizipiodun aditz gehienak bokalez amaitutakoak direnez, analogiaz berau nagusituko zen Mendebalde gehiengan.

Manterolak (2015: 289-290) *-heta* proposatzen du toponimiako zein lokatibo pluralaren marken atzean dagoen atzizkirako, Erdi Aroko dokumentazioa oinarri. Honek, txistukari ostean *-keta* bilakabidea azaltzea errazten du, eta bat letorke aurrekoek aditz-izenerako proposatutakoarekin. Beraz, berrikuntza *-heta* aditz-izena izan zela esatea erabat zentzuzkoa da, eta horrela adieraziko dugu lan honetan.

Datu historikoen arabera, *-adu* eta *-idu* partizipioekin daukaten lotura esanguratsua da (Urgell 2006: 944-945), eta partizipiook dokumentatuta ez dauden eremuan aditz-izenak ere ez dira jaso (modu emankorrean). Hala ere, aditz-izenak ez du *-adu* eta *-idu* partizipioen hedadura berbera hartzen, Goierri, Debarrena, Debagoienako iparralderengo herrietan eta Urolan ez baitira ageri.

Berrikuntza honekin ez da arazorik fokua Gasteiz aldean kokatzeko, Araban beste lurraldeetan baino indartsuago baitzen idazle arkaikoen artean, eta Lazarraga gordetzaileago ageri da Landucci baino. Gainera, azken honetan *-eta* > *-ita* / *a\_* bilakabidea ere bada (*juzticiaitaco* 244, *gordaytan* 279)<sup>10</sup>, arinagotik finkatua zen seinale. Bizkaian aldiz, garai historikoan hedatu zen, Euskara Arkikoaren eta Zaharraren artean. Hori dela eta, Jaurerrian izan zuen garapenaren berri dugu, eta geografikoki ere hedapenaren norabidea marraztu ahal da: Araban, Gasteiztik mendebaldera arinago zabaldu zen ekialdera baino, eta Bizkaian aldiz, ekialdean mendebaldean baino goizago (Urgell 2006: 932).

Landu ditugun idazleen artean, ez datoz bat aditz-izen honen erabilerari dagokionean. Lazarraga, Landucci, Betolatza eta Albenizengan bada, baina Gamiz (ikus 8. oh.), Portal, Sevilla1619 eta Iturberengan ez: *bilaeta* (Laz. B20:21), *hilar – guoruetâ egon* (Lcc. 281), *exercitador – exercitaitan deuena* (Lcc. 274), *parquetan deustegunaleguez* (Bet. “Pater Noster” 14), *proponietan* (Alb. 172), *acabaiten* (Alb. 172).

Berankorragoa izan behar du *-keta*-ren gramatikalizazioak (txistukari osteko testuinguruez gain), hartu zuen (eta hartzen duen) eremu geografikoa txikiagoa baita. Euskara Arkaikoan, hau ere Landuccik du aurreratuen (*-eta*-ren pareko), berrikuntza Gasteiz ingurutik hedatuaren seinale. Gainera, zabaltze prozesuan dago, *-te* eta *-tzaitte*

<sup>10</sup>Bilakabide hau Albenizengan eta Oñatin ere bada. Bertan, urrats berri bat eman du eta *-ite* forman gorde da: *-eta* > *-ita* > *-ite* (Zuazo 2018: 906).

aditz-izenen zenbait testuinguru morfologikotara ere hedatzen zelarik (Urgell 2006: 935). Horren adibide izan daitezke Mitxelenak (1958: 36-37) emandako batzuk: *eunquetâ* (eho), *osquetan* (ostu), *aulquetâ* (ahuldu), *aguinquetâ* (agindu), *vayquetan* (bahitu), *oriquetan* (\**oritu*), *vaquetea* (batu), *quenquetea* (kendu), *yrasçarriquetaco* (iratzarri), *esquetea* (estutu), *veroquetea* (berotu), *sinisquetea* (sinestu).

Hala ere, Arabako hiriburuak jada eragin-eremu murriztagoa zuen garaikoa izan behar du, eta euskara ahuldu zenekotik ez oso urruti. Horrela, beste berrikuntzen hedadurarekin alderatuz, Gasteizko azken “berrikuntza-sortaren” barruan kokatu daiteke, absolutibo pluralaren komuztadura faltarekin batera (§ 4.1.16.), esaterako. Gaur egun, Debagoienan erabiltzen da aditz-izen hau, eta gure corpusean Landucci, Lazarraga (*ezkonqueta* A19:5; *sinisqueta* B16:43) eta Albenizengan (*aguiquetan* 167; *barcaquetaco* 169) baino ez ditugu aurkitu adibideak.

#### 4.1.16. Pluraleko komuztadura falta

Araberaren berrikuntza esanguratsuenen artean kokatu daiteke objektu pluralaren komuztadura ez betetzearena. Debagoienan, Goierri gehiengan, Otxandion eta Legution<sup>11</sup> dokumentatu izan da Lakarra (1986: 662-664) eta Zuazoren (1989: 30-31, 1998a: 161-162) arabera, eta tradizionalki bertako hizkeren ezaugarritzat hartu izan da. Kontua da, Araba erdi-ekialdeko idazle gehienek ere bazeukatela, eta horietako batzuen kokapen geografiko eta kronologikoak (Landucci eta Lazarraga batez ere), berrikuntzaren fokua Gasteiz eta Lautada inguruan kokatzera garamatzala.

Lehen lekukotasunetatik agertzeak, garai historikoaren aurreko berrikuntza izan zela adierazten digu, eta hedapen geografikoa kontuan izanda Erañak XIII.-XIV. mende bitartean koka du (2020: 52). Egile honek gainera, zehaztaperen ugari egiten du berrikuntza honi buruz, eta beronen geruzak sailkatzen ditu bakoitzaren hedaduraren arabera:

Geruzarik zaharrena adizki ditransitiboetako izan daitekeela deritzo, eremu-geografiko zabalena hartzen baitu (Araba erdialde eta ekialdea, Debagoiena eta Goierri), eta sistematikotasun handienarekin betetzen dena da. Aipatu eremu geografikoetatik kanpo, *Viva Jesusen* 2 adibide eta Azkoitiko *Sumario Breven* adibide bat aurkitu dira, inoiz berrikuntzaren eragina beste eskualde batzutarra zabal zitekela erakutsiz, nahiz eta gerora iraun ez (Eraña 2020: 43). Lan honetan aztertutako idazleen artean, Lazarragarengan (*aditu eguidaçu esan gura deusudan bervaoc* Laz. AL 1153r),

<sup>11</sup>Gaminderen (1984) lanean aldiz, pluraldun formak jasotzen ditu azken bietan. Zehatzago, Legutio aldean \**edun*-en objektu 1. eta 2. pertsonako adizkiak (*gau*, *zau*) jasotzen dira, baina bestelakorik ez.

Albenizengan (*barcatuco diozula bere becatuac* 170) eta Sevilla1619ko posible bakarrean (*Jaunaq eman sien / ligeraq corpusaq* 67-68) agertzen zaigu ditantsitiboetan. Gamiz eta Landuccin aldiz ez da adibide posiblearik agertzen, eta harrigarriena da Betolatzareneko<sup>12</sup> posible bietan ez agertzea.

Bigarren geruzan, iragangaitz datibodun aditzak sartzen ditu Erañak. Geruza honetan zailagoa da ezer zehaztea, lekukotasun gehienetan ez delako adibiderik ageri. Hala ere, gaur egungo hizkeren gaineko azterketen arabera Goierri eta Debagoienan komunztadura falta da (2020: 47), baina ez da ditransitiboetan haina sistematikotasun lekukotasun historikoetan zehar. Gure corpusean, adibidez, Gamizek komunztadurarekin egiten duela dio Erañak (2020: 2. Taula), eta Lazarragak aldiz, komunztadura gabe (*onela yragaiten jat gau-egunac* Laz. A17 1186r). Beste idazleen testuetan ez da hauen adibiderik.

Hirugarrenean *\*edun*-en adizkiak daude. Azken hauek hedatzen ari dira garai historikoko lehen lekukotasunetan (Lazarragan bietara agertzen zaizkigu), eta Araba erdialdeko (Gasteiz eta Lautada) euskararen ahultzea arrazoi, geografikoki eremu txikiago batera zabaldu bide ziren. Multzo nagusi bitan banatu ditugu, objektua 1. eta 2. pertsonakoa denean batetik, eta 3. pertsonakoan bestetik:

Lehenaldiko *\*edun*-en adizkietako *gen-/zen-* > *g-/z-* (§ 4.1.20.) berrikuntzaren antzeko isoglosa eman izan zaie *gau* eta *zau* erako adizkiei (Altuna 1995: 110), eta Zuazok (2017: 121) Debagoiena eta Legution kokatzen ditu gaur egun. Gure corpusean lekukotze gutxiago dauka berrikuntza honek, eta Lazarragaren eskuizkribuan baino ez ditugu aurkitu: *çaut* (AL:1147r), *çabenorri* (AL:1152r),... Gainera, Lazarragaren adibideak 2. pertsonakoak baino ez dira (aipatu berrikuntzan bezala), eta pluralgiledunekin batera agertzen dira (*çaitut* A16:77). Honek erakusten du garai hortan hastapenetan zela berrikuntza. Albenizen testuan aldiz, pluralgilearekin agertzen zaizkigu: *zaitudan* (171), *zaitut* (172). Kontrakoa esperoko genuke azken honetan, *zaben* forma baitakar (§ 4.1.20.).

Objektua 3. pertsonakoa denean aldiz, oraindik ere hedadura murriztagoa du. Adibide gehienak Arabako lekukotasunetan dokumentatu dira (hemendik kanpo Barrutiarengan eta *Sumario Brevean* bina Eraña 2020: 50). Gaur egun gainera, ez dago komunztadura hau gabeko hizkerarik bizirik, beraz, Arabara murrizten den berrikuntzatzat jo dezakegu, Zuazok esan bezala ((Zuazo 1998a: 184 in Urgell 2020: 10). Gure corpusean Lazarraga

<sup>12</sup>Betolatzaren kasua “xelebrea da”. Zabalduen dauden plural komunztadura gabeko ditransitiborik ez dakar, baina bai ostera hedadura gutxi daukaten *\*edun* erroko bat (aurrerago). Bilbon argitaratutako testua dela kontuan izanik, agian kontuz hartu beharko dugu aldaera batzuekin, aurrerago Gamizekin esan dugun bezala (§ 8. oh.).

(bietara), Betolatza, Albeniz eta Gamizen testuetan topa genitzake adibideak. Landuccirenean, aldiz, ez dakar testuinguru posiblerik.

- (1) *Pelicanoac amorioz / umeac daguianean, / bere odolaz mantenicen dau / guztia ac artean.* (Laz. A16:89-92).
- (2) *guero errezadu beardogu / daquiguçan oraciñoak* (Bet. “Las Oraciones” 1-2).
- (3) *ceiñac mereci deudan neure pecatuagaitic* (Alb. 171).
- (4) *onerean irugarren egunean ateraco ditu buruac edetera, çuec socorridu ez badaguçu* (AL:1153v).
- (5) *zugatic gauza gustiac / izten dut oso* (Gam. “Dabilcenchoac” 34-35).

Erañak (2020: 3.2.3.4.) lantzen duen azken atala, adizki sintetiko batzuetan ere agertzen den absolutibo pluralaren komunztadura falta da. Aditz trinko gutxi batzuetara murrizten da: Landucci, Lazarraga eta Gamizen *eduki* erroko adizkietan agertzen da, baina Larreakoak aditz gehiagotan ere baditu: *orejudo – belarri andic daucana* (Lcc. 299), *Barri onac dacart* (Laz. A13:1), *bodac daucagu* (Gam. “Veste tunucho berri bat” 16). Gaur egun ere, Oñati eta Leintz-bailaran *eduki*, *ekarri* eta *jakin* aditzetan egiten da.

#### 4.1.17. *Jagin eta jakin aditzak*

Arabako lekukotasunetan aurkitutako bi aditz hauek, berezitasun handia daukate euskararen historiaren azterketan: “perpaus jokatugabeko argumentu datiboarekin komunztadura egiten duten aditz jokatugabeen lehen lekukotasunak dirateke euskararen historian” (Mounole 2020: 148). Orrialde bereborean azaltzen duen legez, aditz beregain zein laguntzaile bezala ager daitezke, *jakin* partizipio batekin, eta *jakin* partizipio zein aditzoinarekin. Oro har, *jakin* iragankor gisa agertzen da, eta *jakin* iragangaitz. Baliteke *egin* eta *\*edin* (*ekin*) aditzak egotea hauen azpian.

Lazarragaren eskuizkribuan (Lazarraga eta Sasiolaren zatietan agertzen dira) nahiko oparoak dira, baina honetaz gain Ulibarrik (2015) Aiarako testu batean aurkitu zuen beste adibide bat. Arabako eremu guztiz desberdinetakoak izateak ezaugarriaren hedadura ez zela lokala adierazten digu, eta Lakarrak adierazi bezala, Arabako euskarari izaera propioa emango liokeen ezaugarri garrantzitsuenetako bat; beste inon aurkitu ezean, bertako ezaugarri eksklusibotzat hartu beharrekoa baita:

...baliteke ezaugarri hau esanguratsu bilakatzea A euskalkitzat hartzeko orduan; izan ere, A-k “besteren” (B, G, inoiz GN-ren) ezaugarrien konbinazio berezi hutsa dela dirudi inoiz, ezaugarri propio gabekoa: oraingoan, ordea, ezaugarri honek lehendik ere ezagutu behar zitzaion “orijinaltasun” eta autonomia are markagarriago bihurtzen du (Lakarra 2014: 200).



#### 4.1.18. Beste erro ditransitibo bat: *-a(g)o-*

Lazarragaren edizioan, *jagin* eta *jakin* aditz jokatuabeekin batera, datiboarekin lotutako beste adizki batzuk dokumentatu dira: *jago*, *jagot*, *ñagon*<sup>13</sup> formako adizki ditransitibo jokatuak dira. Hala ere, edizioan, /g/ epentesidun *-i(n)-* erroko adizkiekin lotzen dituzte, eta ez dute hauei buruzko askoz gehiago aipatzen (Bilbao et al., 2020: 163-164). Zuazok aldiz (2018: 904), Zabala, Bonaparte eta bestetzuk Bergaran, Antzuolan eta Oñatin kokatu zituzten (eta egun oraindik ere erabiltzen diren) adizki batzuekin lotu zituen. Azkenaldian, hasiak dira erro honi buruzko azterketa sakonagoak egiten; Eraña (2020) eta Ariztimuño (prestatzen) dira horietako bi:

Erañak zuzenean lotzen du *jagin* aditz jokatuabearekin, eta biak *eragin* aditzaren forma gramatikalizatuak direla ondorioztatzen (2020: 68-71). Hau bat dator Mounolek (2020: 4.1.5.) dioenarekin, hau da, atzean *egin* erroa ezkuta dezaketela. Honetaz gain, Lazarragak birritan *eragin* adierarekin erabiltzen dituela adierazten du: “Lazarragak, aldiz, ez du [izena + eragin] bezalako aditz konposaturik kausatiboa adierazteko, baina [berba + jagin] inergatiboa darabil birritan” (2020: 70). Azkenik, *-r-* galdu izana Gipuzkoako zenbait idazlek *\*eradun* erroko formetan ere falta izatearekin justifikatzen du, baina horrelakoak askozaz beranduagoak dira.

Ariztimuñok ostera (2020), ez du aurreko biek bat egiten, eta ditransitiboko forma hauen atzean *\*edadun* erroa proposatzen du; erro aurreko *-a-*, hasierako palatalizazioa eta erroko bokalaren eta datiboko *-o-* -ren arteko bateragarritasun fonetikoa argudiatuz. Hala ere, itxaron egin beharko da prestatzen ari den azterketa amaitu arte.

Lazarragaren eskuizkributik gaur egun arte orokorrean antzera mantendu diren arren, badira batetik besterako aldeak: Erañak dioenez (2020: 72), Lazarragak *\*edutsi* eta *-i(n)-* erroekin batera erabiltzen ditu ditransitibo jokatuok, baina Amilletaren testurako jada, banaketa osagarrian daudela antzeman daiteke. Honetaz gain, Larreakoaren testuan datibo argumentua 3. pertsona singularra zuten orainaldiko adizkietan baino ez da lekukotzen, Bergara eta Antzuolan aldiz, 3. pertsona pluralean ere bai, eta azkenaldian iruganeko adizkietara ere ari dira zabaltzen (2020: 71).

#### 4.1.19. *\*eradutsi*

Lazarragaren eskuizkribuak askorako eman du. Horren beste adibide bat ordura arte dokumentatu gabeko aditz perifrastiko kausatiboen agerpena da: *\*eradutsi*<sup>14</sup> eta *eragin*

<sup>13</sup>Lan honetan bat egiten dugu Ariztimuñok (2020) proposatutako sudurkari palatalaren hipotesiarekin.

<sup>14</sup>Joseba Lakarrak ahoz esan didanez, *\*eradutsi*-rekin ez dago garbi *\*edutsi* + *-ra-* aurrizkia ala *\*eradun* +

laguntzaileekin gauzatzen da, eta trinkoak bezala osatzen dira (Mounole 2020: 4.4.4.). \**eradutsi*-k dituen lau agerpenetatik birritan baino ez du kausatibotasuna adierazten (1,3), eta beste bietan ditransitibo arrunt bezala jokatzeko du (2,4):

- (1) *lauoi bardin on erechi ez derausteçu* (Laz. 1145v).
- (2) *eragocico deraustae damaoc servieta* (Laz. 1195v).
- (3) *aserratu deraustaçu, ceurorrec ala guraric* (Laz. 1201r).
- (4) *ez deraustae besteric ateraco* (Laz. 1194v).

Zuazok (2018: 905) dio Aramaion eta Leintz bailaran \**erautsi* erroko laguntzaileak erabili izan direla, eta gaur egun galeran daudela. Ormaetxea (2006: 4.5.16) da hauek biltzen dituenak: *darutzet*, *darutzo*, *darutzesu* Aramaio eta Arrasaten, baina *deautze*, *deautzo*, *deautzesu* Aretxabaletan eta *derautzet*, *derautzo*, *derautzesu* Eskoriatzan.

Haatik, aditzok ez ditu deskribatzen Lazarragarenak duten faktibotasun balioarekin, “ari izan” eta “jardun” aditzaren balioarekin baizik. Jada Azkuek (1969: 699 in Ormaetxea 2006: 294) ikusarazi zuen aditz mota hau, eta Orozkon parekide bat zeukala adierazi ere: bertan, *eragon* aditza erabiltzen da balio berberarekin.

Bat-etortze honi dagokionez, Erañarekin (2020: 61) bat gatoz ezin dela halabehar hustzat eman. Are gehiago balio desberdina izan arren, beste inon ere ez denean lekukotu. Beraz, balio semantikoak gora-behera, funtsean Lazarraga Debagoienarekin lotzen duen beste ezaugarri eksklusibo baten aurrean ginateke.

Egia da, bestalde, lekukotasunak hain urriak izateak ez duela azterketa sakon bat egiteko baldintza aproposik ematen, baina komenigarri litzateke etorkizunean gai honi ikuspegi zabalagoa eskaintzea, balio bereko *eragon* aditza non eta Orozkon baita lekukotua.

#### 4.1.20. \**edun*-en lehenaldiak: *geben*, *zeben*

Debagoienan eta Legution \**edun*-en iraganeko adizkietan *geuan*, *zeuan*, eta eratorritako formak (*geben* / *zeben*, *gemen* / *zemen*, *gauen* / *zauen*,...) aurkitzen dira gaur egun. Hauetaz gain, Arabako herri batzuetan ere dokumentatu dira (Nafarrete, Urrunaga, Urbina) eta araberazko lekukotasunetan ere azaltzen dira (Altuna 1995: 108-110): Albenizen behin topa daiteke (*zaben* 173) eta Lazarragan honelako ugari aurkitzen dira. Honek berrikuntzaren fokua Araba aldean koka dezake, eta hedadura murriztekoen (beraz, berankorrenen) artean. Bestalde, Arabako beste lekukotasunetan ez agertzean

---

-*tsi* den. Batetik bestera asko alde handia litzateke bai kronologikoki, eta bai geografikoki.

ezaugarriaren hedaduraz zer pentsa ematen du, ez baitu geografikoki eremu garbirik islatzen.

Lazarragaren eskuizkribuan subjektua 2. pertsonakoa denean agertzen zaigu, eta aipatzekoa da, \**edun*-en adizkietaz gain, beste erro batzuetan ere ikus daitekeela: *ceguian* ‘zenegian’, *ceucala* ‘zeneukala’, *ceucan* ‘zeneukan’, *ceustan* ‘zeunstan’, *ceben* ‘zenuen’ (AL:1153r). Gainera, bilakabidearen tarteko forma litzetekeen *zee*- ere agertzen da: *ceeguidan* ‘zenegidan’ (Bilbao et al. 2020: 158-159). Umerez oñatiarraren testuan ere, Lazarragak legez subjektu pluraleko adizketan eta \**edun*-en beste adizki batzuetara zabaldua ageri da: *errecividu guituban* ‘genituen’ UmO 44v, *emungo guituquian* ‘genituzkeen’ UmO 71v, *guragoco gueuque galdu* UmE149, *sentiduco bazeube* ‘bazenute’ UmO 159, *jaquingo bazeu* UmO 46 (Uribe-Etxeberria 2020: 6).

Honek A sartaldean \**edun*-en iraganeko adizkietan bilakaera analogiko bat gertatu zela erakusten digu, B sartaldean gertatutakoaren aurkakoa, hain zuzen: sartaldean singularrekoak pluralezkoen formen eredura egiten dira (*nenduan*), eta kasu honetan pluralak dira singularren eredura egiten direnak (Mitxelena 1963: 49-50). Bilakaerari dagokionez, Lazarragaren adibideak prozesua argitzen laguntzen digu, eta *zen*- > *zee*- > *ze*- gertatu zela erakutsi.

## 5. Ondorioak

Orotara, lan honetan arabera linguistikoki definitzeko saiakera berri bat egin da. Mitxelenaz geroztik, zenbait euskalarik heldu diote gai honi, batez ere azken urteotan, Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzaren ostean, bultzada berria ematen ari zaiola baitirudi (cf. orain Bilbao et al 2020).

Historian zehar eman izan zaion trataeraren aurkezpena eman dugu, Oihenartengandik hasita gaur egun arte, eta Urgell (2020) jarraiki, dialektoa linguistikoki eta geografikoki definitzearen beharraz jardun dugu (§ 3.1.). Auzi honek eman dio bide lanaren helburuari.

Horretarako, dialektologia diakronikoaren eredutik aztertzea beharrezko iruditu zaigu, eta gure lanean baliagarri izan zaizkigun metodologia gai batzuk aipatu ditugu (§ 2.). Caminoren 2008ko lana eta Lakarraren 2014koa izan zaizkigu iturri nagusi horretarako.

Honen guztiaren ondoren, gure analisi saioari ekin diogu, zortzi lekukotasunen gaineko azterketa eginez. Bost arabar garbiak dira (Lazarraga, Landucci, Betolatza, Gamiz eta Albeniz), beste hirurak, aldiz (Portal, Sevilla1619 eta Iturbe), kokatu gabe daude, baina araberekin lotu dira. Lekukoon ezaugarrietarik hogeikertu ditugu, eta bertatik ateratako datuetatik zenbait ondoriotara heldu gara:

Ezaugarriok bost multzotan banatu ditugu: sailkapenerako balio ez digutenak (5.1.); A, B eta G lotzen dituztenak (MEZarenak) (5.2.); Bk eta Ak partekatutakoak (5.3.1.); A Btik bereizten dutenak (5.3.2.); eta Aren ezaugarri eskusiboak (5.4.).

**5.1.** Lehenengo eta behin, arrazoiren batengatik akabuan sailkapen dialektalik egiteko balio ez diguten ezaugarriak ere landu ditugu lanean zehar: \**edin* adizkietako asimilazioak (§ 4.1.5.) sailkapenetik kanpo utzi ditugu, berrikuntzaren izaera fonetiko eta hedadura nabarrak poligenetikoak izan zelako susmoa eman baitigu. Bigarrenik, bokal sudurkariak (§ 4.1.8.) arkaismo hain orokorra izanik, ez digu balio izan hizkera(k) sailkatzeko. Azkenik, *-ain/-an* eta *-uin/-un* txandakatzearen (§ 4.1.9.) banaketak ere ez digu ezer garbirik erakutsi.

**5.2.** Urgellek (2020) MEZa linguistikoki definitzeko erabilitako lau ezaugarriak dira multzo honetan sailkatu ditugunak. An, Bn eta Gn lekukotzen dira, nahiz eta xehetasunak izan batetik bestera.

1.  $a + a > ea$  morfofonologikoa (§ 4.1.1.)
2. *egin* laguntzailea (§ 4.1.2.)
3. *-rean* marka (§ 4.1.3.)
4. \**edun*-en 3. pertsonetako erroetan *-au-* edo *-eu-* gordetzea (§ 4.1.4.)

Ezaugarrietako bi berrikuntza zaharrak dira, eta geografikoki oso hedatuak, beraz, oso ezagunak bibliografia modernoenean:  $a + a > ea$  morfofonologikoa eta *egin* aditz laguntzaileetako erroa. MEZa definitzeko berrikuntza nagusitzat (cf. Lakarra 2014 eta Zuloaga 2020) jo izan dira; eta hedadura geografikoak eta erabileraren sistematikotasunak, beste arrazoi batzuen artean, berrikuntzon fokua Gasteiz eta Lautada inguruan jartzera eramanez hizkuntzalariak. Beste biak, arkaismo garrantzitsuak dira (ikus arkaismoez § 2.): *-rean* ablatibo marka eta subjektu 3. pertsonako \**edun*-en adizkietako diptongodun erroak. Garrantzitsuak direla diogu, A, B eta G lotzen dituztelako batetik, eta gainerako dialektoekiko eskusibotasuna erakusten, bestetik.

**5.3.** Aurrerago, A Brekin lotu eta bereizten duten ezaugarriak banatu ditugu. Bide honetatik, MEZaren barne dialektalizazioan sakondu nahi izan dugu, eta hizkuntza-egoera horren lehen haustura nondik jazo zen zirriboratu. Brekin lotzen duten zazpi ezaugarri bildu ditugu, eta bereizten duten bost. Hala ere, kopuruak kopuru, Brekin lotzen duten ezaugarriak garrantzitsuago direla irizten diegu:

### 5.3.1. Multzo honetan, B eta A (Debagoiena barne) lotzen dituzten ezaugarriak ditugu.

1. *-gaz* soziatibo singularreko marka (§ 4.1.10.)
2. Ditrantsitiboetarako *\*edutsi* erroa (§ 4.1.12.)
3. *-z* pluralgilearen hedatzea zenbait aditzetan (§ 4.1.14.)
4. *-adu* eta *-idu* partizipioak mailegu berrietan (§ 4.1.13.)
5. *-eta* aditz-izena (§ 4.1.15.)
6. Txistukarien sabaikaritzea (§ 4.1.6.)
7. Genitiboko formak (§ 4.1.11.)

Hauetarik bost, berrikuntza zaharrak dira, lehen lekukotasunetarako jada agertzen direnak: *-gaz* soziatibo singularreko marka, *\*edutsi* erro ditrantsitiboa, *-adu* eta *-idu* partizipioak mailegu modernoetan <sup>15</sup>, *-eta* aditz-izena <sup>16</sup> eta *-r-* gabeko genitibo singularreko formak. *-z* pluralgilearen hedadura aldiz berrikuntza modernoa da, eta txistukarien sabaikaritzea ilunagoa dela deritzagu (ikus beherago).

*-gaz* soziatibo singularreko forma Bk eta Ak partekatzen duten berrikuntza zahar bat da. Hala ere, aldea dago batetik bestera; Bn bakarra den bitartean, An *-kin* formarekin batera agertzen baita. Gainera, Iturberen lekukotasunetik ondoriozta genezake jada garai historikoan *fase sparitan* zegoela eremu batzuetan (§ 4.1.10.). Beraz, berrikuntza zaharra dela eta inoiz hedadura handiagoa izan zuela pentsatzera garamatza.

*\*edutsi* ditrantsitiboarekin soziatibo marka singularren antzeko kasua gertatzen da: Bn *\*edutsi* da agertzen ia bakarra (ikus 17. oh.), eta An beste erro batzuetako adizkiekin batera dago (§ 4.1.12.). Hala ere, *-gaz* baino modernoagoa bide da, hedatuz ageri baita euskara historikoan zehar.

*-adu* eta *-idu* partizipioen berrikuntzak multzo honetako zaharrenen artean behar du izan, besteek baino eremu zabalagoa hartzen duelako: A eta Bz gain, Urolan eta Goierrin ere bada, eta lehenengo lekukotasunetarako jada sistematikoa da.

*-eta* aditz-izena aipatu partizipioekin loturik bide da (§ 4.1.15. edo Urgell 2006 xehetasun gehiagotarako) eta euskara arkaiko eta zahar bitartean zabaltzen da Bizkaian. Hala ere, aurrekoak baino berankorragoa izan arren, bata zein bestea Bk eta Ak konpartitutako berrikuntzak dira.

Orokorrean banaketa hau dute genitibo singularreko formek ere: Gn eta gainontzeko

<sup>15</sup>Hala eta guztiz ere, ezin daiteke esan gabe utzi G sartaldean ere aski ezagunak direla horrelakoak.

<sup>16</sup>Aurrerago esan bezala (§ 4.1.15.), berrikuntza hau Bizkaian zehar hedatzen ikus daiteke lekukotasun arkaikoetan.

dialektoetan *-aren* marka den bitartean, Bz eta Az *-aen* da nagusi (nahiz eta *-aren* ere agertu) lehenengo testuetatik. Bokal multzoen soiltzearen ondoren forma nagusi bi eman zituen, *-an* eta *-en*<sup>17</sup>.

Eremu honetan, lehen lekukotasunetik *-z* pluralgilearen hedapenaren hastapenak antzeman daitezkeen arren, gehienbat garai historikoan gertatzen da, eta horietako asko modernoak dira. Hedapen guztiek ere, ez dute kronologia eta geografia bera, batetik bestera alde handiak direlarik (§ 4.1.14.).

Multzo honetan sartu dugun azken ezaugarria txistukarien sabaikaritzea litzateke. Berrikuntza hau izan da zalantza handienak eragin dizkiguna, pare bat arrazoiengatik: Araba erdialde eta mendebaldekoetan sistematikoa da, Lazarragan bikoiztasuna da, eta ekialderago ez da ageri. Debagoienan ere, aldeak daude lekukotasunetik lekukotasunera, eta egun Leintz bailaran baino ez da (Zuazo 2017: 28). Berrikuntza hau beraz, Bizkaitik zabalduakoa bide dela uste dugu, Zuloagaren (2020) difusio-eredu hierarkikoaren bidez zabaltzearen hipotesiarekin bat eginez.

**5.3.2.** Halaber, B eta A (Debagoiena barne) bereizten dituzten ezaugarriak ere aurkitu ditugu.

1. Subjektua 3. pertsonakoa den *\*edun*-en erroetan *-eu-* diptongoa (§ 4.1.4.).
2. Adizkietan  $a + a > ea$  bilakabide fonetikorik ez gertatzea (§ 4.1.7.).
3. Sudurkari berrezarri gutxiago (§ 4.8.).
4. Ditrantsitiboetan *-i(n)-* erroa gordetzea (§ 4.12.).
5. *-kin* soziatiboko marka singularrean (§ 4.1.10.).

Hemen azalduko 5 ezaugarrietarik, bi (adizkietako  $a + a > ea$  eta sudurkari berrezarriak hain hedaturik ez izatea) Bren berrikuntza positiboak ez hedatu izanagatik dira, eta beste bi (ditrantsitiboko *-i(n)-* erroa eta soziatibo singularrean *-kin* marka gordetzea) berdin baina berrikuntza negatiboekin. *\*edun*-en erroetan *-au-* > *-eu-* gertatu izana da berrikuntzatzat har genezaken bakarra.

Subjektua 3. pertsonakoa denean, Az eta Gz *-eu-* diptongodun formak agertzen zaizkigu *\*edun*-en adizkietan (ikus § 4.1.4.). Hala ere, An ez da bakarra, eta horrelakoekin batera *-au-* eta *-u-* erroedun alomorfoak ere badira. Beraz, ez da sistematikoa eta orokorra.

Adizkietako  $a + a > ea$  bilakabide fonetikoa Bren eremu guztian dokumentatzen da,

---

<sup>17</sup>*-an* forma araberezkotzat hartu izan da, baina gure corpusetik lortu ditugun datuetarik, ez dugu bien arteko bereizketa garbirik aurkitzerik lortu (§ 4.1.11.).

sistematikotasun nahiko handiarekin gainera. Ara joaz gero, Debagoienan agertzen da, baina sistematikotasun gutxirekin, eta denbora tarte bateko lekukotasunetan baino ez. Aztertutako corpusean Lazarragan baino ez dira (§ 4.1.7.). Beraz, berrikuntza honek eragina izan zuen Aren eremu batzuetan, Brekiko mugakideetan hain zuzen, baina ez zuen errotzerik lortu.

Bokal sudurkariak sudurkari berrezarriak garatu dituzte testuinguru batzutan. Inon baino gehiagotan ikus daiteke Bn, baina An honek indar gutxiago izan bide zuen (§ 4.1.8.). Azterketa sakonik egin ez dugun arren, Araba eta Debagoienako lekukotasun eta hizkeretan testuinguru gutxiagotan agertzen da berrikuntza.

Bz ditransitiboetarako *\*edutsi* erroa (ia) bakarra den arren<sup>18</sup>, Az ez da horrela gertatu: aipatu erroaz gain, *-i(n)-* erroa ere agertzen da, eta erro nagusia izan ez arren, emankorra da. Hauetaz gain, beste ditransitibo batzuk ere jaso dira (ikus § 4.1.18 eta § 4.1.19.). Egoera honek, MEZaren berreraiketako ere laguntzen du, adarkatze bitarraren metodoa jarraiki *-i(n)-*ek aukerarik gehien bailuke han izateko. Hala ere, ez gara honetan luzatuko, ez baita gure oraingo helburua.

Ditransitiboan antzeko egoera daukagu singularreko sozietiboan: Bz *-gaz* forma da bakarra, baina Az *-kin* formarekin batera agertzen da. Halaber, aldeak daude lekukotasunetik lekukotasunera.

**5.3.3.** Datuotatik MEZaren barne-dialektalizazioan Ak eta Bk talde bateratua osatu zutela atera dezakegu. Honetan bat gatoz Zuloagarekin (2020). Hala ere, desberdintasunak ikusten ditugu berak proposatutako (2020: 557-568) Mendebalde Muturreko Euskararekin:

Mendebaldeko Euskara Zaharra zatikatu ondorengo hizkuntz-egoeratzat definitzen du, eta batez ere txistukarien  $Vj(t)z > Vj(t)x$  palatalizazioa eta adizkietako  $a + a > ea$  erabiltzen ditu (nahiz eta *\*edutsi* ere aipatu) hau definitzeko. Lan honetan baina, ikusi dugu berrikuntzok ez direla guztiz errotu araberaz. Zenbait ezaugarri aldiz, zabalera handiagoa erakusten dute aurreko biek baino, eta MEZaren ondorengo hizkuntz-egoera partekatua definitzeko balio handiagoa izan dezakete, hala nola *\*edutsi* erroak, *-gaz* sozietibo singularreko markak, etab. Beraz, Zuloagak proposatutakoa hizkuntz-egoera berankorragoa izan daiteke, non batez ere B Arabaren erdi-mendebaldearekin lotzen den.

**5.4.** Azkenik, arabera linguistikoki definitzeko aurkitu ditugun zazpi ezaugarri eskusiboak dakartzagu hona. Lanaren hasieran aipatu dugun legez, inoiz dialekto izaera

<sup>18</sup>Lekukotzen den adibide bakarra *Refranes y Sentencias*en da.

ukatu izan zaio, berrikuntza eskusiborik ez izatea eta beste dialektoetako ezaugarrien nahasketa izatea argudiatuz<sup>19</sup>. Hauetariko batzuk lekukotasun gutxitan agertzen dira aztertutako corpusean, baina beranduago Debagoienan (eta kasuren baten *Dotrinazko Sermoitegian*) lekukotuak izateak garrantzia eta lotura handia ematen die.

1. *\*edun* aditzetan *-eu-* erroa subjektua 1. eta 2. pertsonakoa denean.
2. *-keta* aditz-izena.
3. Plural komunztadura falta. Geruza desberdinak:
  - Ditrantsitiboetan.
  - Abs-Dat.
  - *\*edun* 1. eta 2. pertsonak.
  - *\*edun* 3. pertsona.
  - Sintetikoak.
4. *Jagin, jakin* datibozko jokatuabeak.
5. *-a(g)o-* erroko ditrantsitiboak.
6. *Gen-/ zen- > g-/z-* *\*edun*-en lehenaldian: *geben, zeben*.
7. *\*eradutsi* aditza.

Zazpi horietarik, hiru berrikuntzak dira: *-keta* aditz-izena, pluraleko komunztadura falta eta *gen-/ zen- > g-/z-* *\*edun*-en lehenaldian (*geben, zeben* erako formak) eta *\*eradutsi* erroa. Berrikuntza aski zaharrak dira, jada lehen lekukotasunetan agertzen baitira, kasu batzuetan oraindik hastapenetan egon arren.

*-keta* aditz izena (§ 4.1.15.) lehen lekukotasunetarik dugu Aren gehienetan. Gaur egun Debagoienan da bizirik, baina aski argia da berrikuntzaren fokua Araban izan zela, *-eta-*rena bezala.

Plural komunztadura eza (§ 4.1.16.) Zabalarengandik hasita Gipuzkoako hegomendebaldeko hizkeretan kokatu izan da. Hala ere, isoglosa bereziek eta Arabako lekukotasun arkaikoetan ageri izanak araberaren berrikuntzatzat hartzera garamatza. Ditrantsitibo eta datibozko irangaitzek osatuko lituzkete geruzarik zaharrenak, Araban, Debagoienan eta Goierrin dira eta. *\*edun* aditzeko subjektu 1. eta 2. pertsonakoak eta aditz sintetikoak Araban eta Debagoienan lekukotzen dira (lehena Legutio inguruan oraintsu arte ere bai, ikus Carrera & García 2005 eta Gaminde 1999), eta *\*edun*-en subjektu 3. pertsonakoak aldiz Arabakoetan baino ez. Honek beraz, fokua Lautada aldean

<sup>19</sup>Nahiz eta ezaugarrien konbinaketa soilak dialektoak definitzeko aski diren (Camino 2008: 219).



izan zuen berrikuntza baten hedapen mailakatua erakusten digu. Xehetasun gehiagorako ikus § 4.1.16. edo Eraña (2020).

\**edun*-en iraganeko aditzetan beste berrikuntza bat agertzen zaigu: *geuen / geben / gemen*,... eta *zeuen / zeben / zemen*,... tankerako formak (§ 4.1.20.). Lehenaldiko pluraleko formok, singularraren eredura eginak dira, *gen-/ zen-* > *g- / z-* bilakabidearen bidez. Aztertutako corpusean Lazarraga eta Albenizen baino ez ditugu aurkitu adibideak, baina Debagoienako eta Legutioko hizkeretan ere lekukotu dira.

Azkenik, Lazarragaren eskuizkribuan \**eradutsi* erroko lau ditransitibo aurkitu dira. Horietako bik kausatibotasuna adierazten dute. Aurrerago esan bezala (§ 4.1.19.), Leintz bailaran ere badira erro berdineko aditz batzuk (*derautzet, derautzo* Ormaetxea 2006: 295), baina adiera semantiko desberdinarekin (progresibotasuna adierazteko). Beraz, erro berbereko gramatikalizazioak diruditen arren, hirutan bereiztu behar ditugu: Lazarragarengan agertzen diren ditransitibo arruntak; Lazarragaren eskuizkribuko laguntzaile kausatiboa; Leintz bailarako balio progresibodunak. Halere, semantikoki desberdinak izan arren, beste inon ere lekukotu ez den \**eradutsi* erroaren adizkiak dira denak.

Gainontzekoen artean, objektu 1. eta 2. pertsonako \**edun*-en adizkietako *-eu-* erroa arkaismoa litzateke, eta *jagin* eta *jakin* laguntzaile jokaturgabeak eta *-a(g)o-* erroko adizkiak ez dakigu ondo berrikuntza ala arkaismotzat hartu beharko genituzkeen. Lanean zehar arkaismoek berrikuntzek baino balio sailkatzaile gutxiago dutela esan dugun arren (ikus § 2.), azken biei, berrikuntza zein arkaismo izan, tratu berezia eman behar zaiela deritzagu, aski berezi eta garrantzitsuak direlako: eskusibotasun handia dute, hain justu araberaren lekukotasun eta hizkera bakanetan baino ez direlako dokumentatu.

Hasteko, \**edun*-en *-eu-* erroa agertzen zaigu An. Gz ere, *-eu-* (>*-eb-*) sarri dokumentatzen dira subjektua 3. pertsonakoa denean, baina Araban, 1. eta 2. pertsonakoetan ere bai: *deut, deugu, deuc*,... Debagoienan aldiz, ez dugu horrelakorik aurkitu. Honelakoak baina, ez dira bakarrak, eta Aren poliformismo handiaren zati dira: *-o-*, *-e-*, *-u-* alomorfoak ere aurkitu baitira aipatu erroaz gain (§ 4.1.4.).

Lazarragaren eskuizkribuan, datiboarekin lotutako *jagin* eta *jakin* aditz jokaturgabeak dokumentatzen dira (§ 4.1.17.). Honetaz gain, Ulibarrik (2015) *Dotrinazko Sermoitegian* aurkitu zuen *jakin* aditzaren adibide bat. Lekukotasun hauek, beraz, behintzat Araba sartalderaino iristen zen ezaugarri propio eta eskusibo bat erakusten digute, beste inon ere ez baita horrelakorik dokumentatu euskararen historian.

Datibozko aditzekin lotutako beste ezaugarri bat dira *-a(g)o-* erroko adizkiak (§

4.1.18.). Ditrantsitibo hauek, Lazarragarengan eta Bergara, Antzuola eta Oñatiko hizkeretan baino ez dira aurkitu, eta inoiz eremu zabalago batean ere egon bide zirela pentsatu behar da. Adibidez, non lekukotu diren ikusita, arraroa litzateke Leintz ibarrean inoiz ere izan ez direla pentsatzea.

**5.5.** Lanaren beste helburuari dagokionez (ikus § 0. eta § 1.3.), arabera geografikoki definitzeko zenbait ondorio atera ditugu gure analisiko datuotatik. Laugarren eta hirugarren multzoko ezaugarriek Debagoienak araberekin Brekin baino lotura gehiago izan duela erakusten digute. Gainera, hizkuntzazkoek ez ezik, lotura geografiko eta historikoek<sup>20</sup> ere hipotesi honen alde egiten dute. Beraz, azkenengo urteotako zenbait lanetan (Lakarra 2017: 61; Zuloaga 2020: 712-713; Urgell 2020; Eraña 2020: 74-77) proposatutakoaren bidetik, guk ere Debagoienako euskara Aren parte dela defendatzen dugu, eta Legutio eta Aramaiorekin batera, honen gaur egungo eremu bizia.

**5.6.** Aurrerago esan bezala, Sarasolak “EH-tik kanpoko batuaren” hipotesia proposatu zuen Iturberen poesia azaltzeko (Sarasola 1983 in Lakarra 2014: 176. oharra). Bada, aipatu dugun (§ 3.) lekukotasun horietako batzuk erabat bateragarriak dira lan honetan araberari eman zaion definizio eta hedaduran.

**5.7.** Amaitzeko, lan honetan MEZ-aren barne-dialektalizazioaz hausnartu, eta araberaren definizio linguistiko eta geografikoan beste pausu bat eman nahi izan dugu. Ezaugarri bakoitzaren azterketa sakonik egin ez badugu ere (ikus Zuloaga 2020 eta Eraña 2020), hasiera batean 20 bat izan ditugu hizpide. Horietarik abiatuta, eta irizpideak eta datuak hierarkizatuaz, arabera linguistikoki definitzeko saiakera hau osatu dugu.

Lanaren osagarri eta etorkizunerako premia kotzat ikusten dugu Araba mendebaldeko lekukotasun eta hizkeretan gehiago sakontzea, eremu bien artean izan ziren loturak eta araberaren barne zatiketa (§ 1.2.) sistematikoki aztertuz. Alde honetatik jarraituz, komeniko litzateke lehenbailehen ondoko dialektoekin batera sailkatu ohi diren hizkera (Aiaraldea, Orozko, Burunda, Debagoiena) eta lekukotasun mugakideak (Garibai, Oñatiko eskuizkribuak, Barrutia, Iturbe, Portal,...) berrikustea eta araberekin konparatzea. Azkenik, MEZaren ondorengo dialektalizazioan nabarmen egin zaizkigun puntu jakin batzuk agertu ditugun arren, beharrezkoa da honi buruzko azterketa zabal,

---

<sup>20</sup>“Se sabe que los nobles con señoríos principalmente en Álava y en menor medida en Guipúzcoa – Condado de Oñate y señorío de Léniz– o Vizcaya –Orozco– resultaron particularmente beneficiados...” (García Fernández 2009: 301); eta baita “...reiteraba en 1486 la obligación de los campesinos de Oñate y Léniz de realizar servicios de vigilancia en el castillo de Guevara (Álava) y en otras fortalezas de su señor” (Díaz de Durana 1999 *apud* Fernández de Larrea y Rojas 2007: 14). Ikus orobat Díaz de Durana (1999) eta Ayerbe (1985).

sakon eta orokorra, dialektoen arteko loturak eta beren mende luzeetako egoera argitu aldera.

Ikusten denez, etorkizunera begira bide luzea geratzen da oraindik alor honetan, eta Gradu Amaierako Lan hau hurrengo ikerketa lanetarako lagungarri izatea gustatuko litzaiguke, azken bolada honetan gaiak izan duen bultzadak luze iraun dezan esperantzaz.

## 6. Bibliografia

- Aldai, G., 2012, "Sobre el origen de Martin Portal, autor de la poesía premiada en Pamplona en 1610", *FLV* 114, 93-117.
- \_\_\_\_\_, 2013, "Sasiola vs. Lazarraga: Acerca del euskera del texto de Estibaliz Sasiola", *Lapurdum* XVII, 7-29.
- Altuna, F., 1995, "Acto contriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren arabarazko eskuizkribua (1778)", *ASJU* 39-1, 83-132.
- Ariztimuño, B., 2015, "Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)", in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen duzu zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU, 49-70.
- \_\_\_\_\_, 2020, "Lazarragaren eskuizkribuko adizkia: grafia-kontu bat baino gehiago", in Camino et al. (arg.) (argitaratzeko).
- Ayerbe, María Rosa, 1985, *Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI): aportación al estudio del régimen señorial en Castilla*, 2 vols. Donostia: Foru Aldundia.
- Bilbao, Gidor, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole & Blanca Urgell (arg.), 2011, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (v1.2)* [online]. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://lazarraga.com>> [Kontsulta: 2020/08/12].
- \_\_\_\_\_, 2020, *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*. Bilbo: UPV/EHU, 2 liburuki (argitaratzear).
- Camino, I., 2008, "Dialektologiaren alderdi kronologikoaz", *FLV* 108, 209-247.
- \_\_\_\_\_, 2019, "An overview of Basque dialects", in *Linguistic Minorities in Europe Online*, Berlin, Boston: De Gruyter Mouton. Hemendik eskuratua: <https://db.degruyter.com/view/LME/LME-9497680>
- \_\_\_\_\_ & al. (arg.), 2020, \*\*\*\*\* (omenaldi liburua argitaratzeko).
- Carrera, I. M. & I. García, 2005, *Legutiano aldeko euskara*, Gasteiz: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia.
- Clare, L., 1974, "Una poesía vasca compuesta con ocasión del nacimiento del Príncipe D. Felipe", *FLV* 18, 397-450.
- Diaz de Durana, J. R., 1999, "Luchas sociales en el señorío de los Guevara al final de la Edad Media" in *Historia de Oñati (siglos XIV-XVI)*, Oñati: Oñatiko Udala, 259-266.
- Eraña, A., 2020, *Arabako euskararen aditz-morfologia aztergai*. UPV/EHUko Master Amaierako Lana. Zuz.: Blanca Urgell dok.
- Fernández de Larrea Rojas, J.A., 2007, "Las fuerzas de los parientes mayores en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Baja Edad Media: reclutamiento y organización". *Iura Vasconiae. Revista de Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia* 4, 163-188.
- Gaminde, I., 1984, *Aditza Bizkaieraz*, Iruñea: UEU.
- \_\_\_\_\_, 1999, "Elosu, Nafarrate eta Urrunagako euskaraz". *FLV* 81, 241-262.
- García Fernández, E., 2009, "La hacienda medieval en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya". *Iura Vasconiae. Revista de Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia* 6, 265-328.
- Goikoetxea Maiza, I., 1982, *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*, Bilbo & Gasteiz: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia.
- Gonzalez, A., 2020, *Orozkoko euskara mendebaldeko hizkeren artean*. UPV/EHUko Master Amaierako Lana. Zuz.: Iñaki Camino dok.

- Gorrotxategi, J., I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), 2018, *Euskararen Historia*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza.
- Kerejeta, M. J., 1991, “Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610”, in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 161-183.
- Knörr, H., 1974, “Gamiz-en hizkeraz zertxobait”, *Euskera* 19, 218-230.
- \_\_\_, 1986, “Betolazaren zenbait berri”, *ASJU* 20.2, 499-508.
- \_\_\_ & K. Zuazo, 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Lakarra, J. A., 1985, “Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia”, *ASJU* 19:1, 235-82.
- \_\_\_, 1986, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20:3, 639-82.
- \_\_\_, 2004, *Juan Perez Lazarragakoaren eskuizkribua (XVI. mendea)*. Diputación Foral de Gipuzkoako Foru Aldundia, Edilán-Ars Libris, Madril.
- \_\_\_, 2014 [2011], “Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz”, in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJUren gehigarriak 69)*, Bilbo: UPV/EHU, 155-241.
- \_\_\_, 2017, “Basque and the Reconstruction of Isolated Languages”, in L. Campbell (arg.), *Language isolates*, Londres & New York: Routledge, 59-99.
- \_\_\_ & J. I. Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask - ASJU* 40-1.
- \_\_\_ & B. Urgell, 2008, “Hausturak nonahi, noiznahi, zenbanahi: gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz”, in Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskaran eta euskal testugintzan nazioarteko mintegia (IKER, CNRS 5478; Baiona, 2008ko abenduaren 12-13) (lan argitaragabea).
- \_\_\_, (arg.), 2018, *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica – ASJU* 52: 1-2.
- Manterola, J., 2015, *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*, UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Joseba A. Lakarra dok.
- Mitxelena, K., 1955, “La doctrina cristiana de Betolaza (1596)”, *ASJU* 2, 43-60.
- \_\_\_, 1958, “Introducción”, in M. Agud and K. Mitxelena (arg.), *N. Landuchio. Dictionarium Linguae cantabricae (1562)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 7-48.
- \_\_\_, 1963, *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- \_\_\_, 1964, *Textos arcaicos vascos*, Madril: Minotauro.
- \_\_\_, 1971, “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV* 3, 241-67.
- \_\_\_, 1977, *Fonética histórica vasca*, Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- \_\_\_, 1981, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 291-313.
- \_\_\_, 1983a, “Gamizen liburua aurkeztatzean”, *Euskera* 28, 103-105. OC X, 79-82.
- \_\_\_, 1983b, “Sarrera”. In J. Goikoetxea Maiza, *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo, poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*, Gasteiz, 5-6.
- \_\_\_ & Sarasola, I., 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia
- Mounole, C., 2007, “Perifrazi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria”, *ASJU* 41:1, 67-138.
- \_\_\_, 2020, “Lazarragaren eskuizkribuko gramatika”, in Bilbao et al., *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*. Bilbo: UPV/EHU, 2 liburuki (argitaratzeaz).
- \_\_\_, & R. Gómez, 2018, “Euskara zahar eta klasikoa”, in Gorrotxategi, Igartua & Lakarra (arg.), 469-541.
- \_\_\_, & J.A. Lakarra, 2018, “Euskara Arkaikoa”, in Gorrotxategi, Igartua & Lakarra (arg.), 345-468.
- Ormaetxea, J. L., 2006, *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)*, Bilbo, UPV/EHU.
- Sarasola, I., 1983, “Contribución al estudio y edición de textos arcaicos vascos”, *ASJU* 17, 69-212.
- Ulibarri, K., 2011, “1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak: *Cancion en lengua Vascongada o Vizcayna que contiene la sustancia deste Sermon*”, *ASJU* 45.1, 361-385.
- \_\_\_, 2015, *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*, UPV/EHUko

- doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Blanca Urgell dok.
- Urgell, B., 2006, “Para la historia del sustantivo verbal en vasco”, in Lakarra & Hualde (arg.), 921-948.
- \_\_\_, 2018, “Lehen Euskara Modernoa”, in Gorrotxategi, Igartua & Lakarra (arg.), 543-657.
- \_\_\_, 2020, “Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenaz”, in Camino et al. (arg.) (argitaratzeko).
- Uribe-Etxebarria, O., 2008, “*Euskerazko doktrinia Anzuelako berba moduan (1825)*”, *ASJU* 42:2, 139-209.
- \_\_\_, 2011, “Gatzagako *cristau-doktrinia* (1862): edizioa”, *ASJU* 45:1, 139-219.
- \_\_\_, 2020, “Debagoienako euskararen iraganaz gehiago”, in Camino et al. (arg.) (argitaratzeko).
- Urkizu, P., 2009, “Un texto olvidado del s. XVII: *Sumario brebea*”, *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* 14, 207-217.
- Zuazo, K., 1989, “Arabako euskara”, *ASJU* 23.1, 3-48.
- \_\_\_, 1998, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 30, 191-233.
- \_\_\_, 1999, “Arabako euskararen kokagunea”, *FLV* 80, 165-184.
- \_\_\_, 2006, “Deba ibarreko euskara zaharra”, in Lakarra & Hualde (arg.), 1005-29.
- \_\_\_, 2010, *Sakanako euskara. Burundako hizkera*, Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- \_\_\_, 2012, *Arabako euskara*, Donostia, Elkar.
- \_\_\_, 2014, *Euskalkiak*, Donostia: Elkar.
- \_\_\_, 2017, *Mendebaleko euskara*, Donostia: Elkar.
- \_\_\_, 2018, “Deba ibarreko euskara”, in Lakarra & Urgell (arg.), 899-908.
- Zuloaga, E., 2020, *Mendebaldeko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*, UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. Zuz.: Joseba A. Lakarra & Iñaki Camino dok.

## 7. Eranskina

### 7.1. Jagin eta jakin adizkien zerrenda

Aditz jokatugabeon lekukotasunak gutxi izanik, bertan zerrendatzea aproposa deritzagu (cf. Lakarra 2014: 199; Ulibarri 2015: 106; Bilbao et al. 2020: 148-149).

#### JAGIN

- (1) *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v).
- (2) *Jaun Cerucoac /çuri bidaldu jaguinic; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 166).
- (3) *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belacunoc neben incadu* (B14: 15).
- (4) *Apea nindin çaldirean / guchi bat apartaduric; / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecurean / reberencia jaguinic* (B18: 70).
- (5) *Beti nabil casoau dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguiteco sendoro* (B18: 115).
- (6) *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebaguea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac, / servidu jaguin artean, / cegaiti nei traspasadu / amorearen leguea* (A24: 136).
- (7) *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A 14: 102).
- (8) *guztiay berba jaguinic* (B29: 50).
- (9) *modu onetan / oyta berba jaguinic* (B29: 79-80).

## JAKIN

- (1) *Donzellea, cegati çaoz / enegaz enojaduric, / çurequin ene aitasuna / horrela anci jaquinic?* (AL:1142v).
- (2) *Sirena bere ainbeste dabil, / besteoc leguez galduric, / Doristeori on derechala, / Silvero anci jaquinic* (AL: 1145v).
- (3) *Acorda çatez ceyn on derechudan, eta bay nola çabilcen enganaduric, igui çabenaren <1152v> acean, ene amorioau ancitu jaquinic* (AL: 1152v).
- (4) *Esperancea galdu jaquinic / bici çan, aseguin bague; / joan gura dau lecreanic / canpurabici içaaten* (AL: 1145v).
- (5) *Tortolachoa ebiltan da / bacochic maiaz ilean, / bere laguna galdu jaquinda, / tristeric soledadean* (A16: 75).
- (6) *Donzella batec joci ceban / Iruneco calean, / niri ondo costa jaquin / Guipuscoaco lurrian* (B32: 23).
- (7) *Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciaric, / deseo neben ocasio bat / cerren nagoan jaquinic* (A23: 4).
- (8) *Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic; / inori emun bajagot bere, / ez nago damu jaquinic* (A23: 60).
- (9) *se gure isen eben aurretu yaquin vere areriyoen maliciyeri* (DotSerm: 4-79).

**7.2. -a(g)o- erroko adizkien zerrenda**

Azkenik, Lazarragarengan, Amilletarengan eta Antzuolako Dotrinan agertzen diren -a(g)o-erroko adizkien zerrenda bere testuinguruan (Aritzimuño 2020: 1. eranskina):

- (1) *Itaundu ñagon poridadean / beste donzella bateri* (Laz, A7:71).
- (2) *Egun ascotan nic eguin ñagon / modu ascotan erregua* (Laz, A21:5).
- (3) *Çaguita çorroz bat ifini ñagon / berar gaxtoaz ganchitua* (Laz, A21:17).
- (4) *Bere cençuna ifini ñagon / promesa ascoz pobladu[a]* (Laz, A21:25).
- (5) *Erançun ñagon: “Ni noçun guero (...)* (Laz, B21:97).
- (6) *Inori emun bajagot bere, / ez nago damu jaquinic* (Laz, A23:59).
- (7) *Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciaric* (Laz, A23:1).
- (8) *Gabetan barriz ez jagot joco / laztanai biguelea* (Laz, A24:17).
- (9) *Ez gueiago ez jagot joco / contereagaz atea* (Laz, A24:23).
- (10) *Juramentu eguiten jagot / obian daçan amari* (Laz, A27a:39).
- (11) *Semeric badeu esaten jago: / “Aita, eguidac jaquea”* (Laz, A24:99).
- (12) *P. Cegati da glorificadorea. R. Cerren vere gracian ilten diranai emoten jaguen gloria* (AmilD, 3).
- (13) *P. Guztiaç aurpegui modubat ecusico jagoe. R. Ez jauna viciaq aleguerea ta ilac aserrea* (AmilD, 6).
- (14) *Orregatic erregutzen jaot Santa Maria beti Virginiari (...)* (AnzD, 8r).
- (15) *Bai, Jauna, Escritura sagraduan daguana eta Jaungoicuac Eliziari rebeladu jaon guztian* (AnzD, 19r).
- (16) *Cer oracino esaten jaozu principalmente Maria Santisimari?* (AnzD, 21v).
- (17) *Eguin biar jaegu oracino Santuay ere?* (AnzD, 22v).
- (18) *Ceiñec honratzen ditu gurasuac? —Obedecitzen jaenac, socorritzen dituanac eta reverenciatzen dituanac* (AnzD, 24r).
- (19) *Ba[y,] Jauna, edoceyn confesorec billatuco jao erremediua, Erromara juan bague* (AnzD, 32v).